argia.eus

argia

2015eko maiatzaren 24a | LXXVIII. urtea | 2.462 zenbakia | 3,90 euro

02462
9 771578402 139093

AHT
Zorpetze amaigabea geldiarazteko unea

Harrobia ikastola: Zahartze aktiborako ikerketa martxan

Langabeziak eta etxebizitza hazkundeak badute eragina euskararen atzerakadan

Argitaletxeak: Elkargune izatetik plataforma hutsera

TTIP? Mexikarrei gizeneria eta diabetesa ekarri dizkie

Datorren astean

Azaleko argazkia: DANI BLANCO

Azala: ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko maiatzaren 24a, 2.462. zenbakia

ASTEKO GAIA

ABIADURA HANDIKO TRENA Gero eta arinago... sinesgarritasuna galtzen. UNAI BREA / 4

PERTSONAIA

TATIANA NAGORNAYA: «Txandala eta oinetakoak besterik ez nekartzala etorri nintzen Moskutik Eibarrera». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIAK

HARROBIA IKASTOLA Langile euskaldunen harrobia lantzen. ITZIAR UGARTE IRIZAR / 14

IRITZIAREN LEIHOA

LAN DUALTASUNA MIKEL ZURBANO / 18
LARRU KONTUAK AINGERU EPALTZA / 20
PARADOXA JASANEZINAK ERIC DICHARRY / 21
MIGRAZIO-IBILBIDEEN BIRZABALTZEA: KASUALITATEA ALA KAUSALITATEA? NEREA AZKONA / 22
GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19
TXANDAN Sei bider. ITXARO BORDA / 20

ERDIKO KAIERA

ARGITALETXEAK Behinola elkargune, orain zer? LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA / 24
HIP HOPA EUSKARAZ Nola iritsi heldutasunera *flow*-a galdu gabe. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 28
LITERATURIA Aurten galdu ezin dituzun bost zita. ITZIAR UGARTE IRIZAR / 30
LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 32
MUSIKA IKER BARANDIARAN / 33
DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34
ALEA Zein da zein aurtengo Usopopen? GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 35
OSASUNA JABIER AGIRRE / 36
DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 37
LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 38
- **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 39

TERMOMETROA

IMANOL ESNAOLA: «Udalerri euskaldunak inguru hauskor bezala ikertu behar dira». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 40
TXANPONAREN BESTE ALDEAK Adinekoari besotik heltzea baino zerbait gehiago. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 42
UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015 PPren azken gotorlekua eror liteke Araban. XABIER LETONA / 43
HERRI HARRESIA Desobedientzia Gasteizen AXIER LOPEZ, LANDER ARBELAITZ / 46
EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47
EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47
NET HURBIL TTIP eta osasuna: Mexikon gertatuak irakatsi diguna. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48
MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ABIADURA HANDIKO TRENA

Gero eta arinago... sinesgarritasuna galtzen

Abiadura handiko trena ez da sozialki errentagarria ia inon, eta Euskal Herrian ere ez da izango. Hala diote munduan barrena egindako hamaika azterketak –kontrakoa dioen azterketarik ez da faltako, noski–, eta errealitate horri aurre egin beharko dio Euskal Y sustatzen buru-belarri diharduen Eusko Jaurlaritzak, gehiengoaren onurarako izango ez den proiektua guztion diruz estali beharreko zulo beltz bilakatzea nahi ez badu. Hona datuak.

| UNAI BREA |

Euskal Y, EAEko abiadura handiko tren proiektua, 2019an egongo da funtzionatzeko prest, eta atzera bueltarik gabeko proiektua da. Halaxe adierazi zuen urtarrilean Ana Pastor Espainiako Sustapen ministroak, azpiegitura horren obrak ikusteko Bergarara egindako bisitaldian. Garbiago esan du hil honetan bertan Julio Gómez-Pomar Azpiegituretarako Estatu idazkariak, Pastor eta gero ministerioan gehien agintzen duenak alegia: abiadura handia estatu proiektua da.

Gómez-Pomarrek ez zuen bereziki Euskal Y-a aipatu, baina zalantzarik ez dago Espainiako Gobernuaren egitasmo handi eta, gero eta gehiagoren ustez, zentzugabe horren barruan, berebiziko garrantzia duela EAEko AHTk. Mariano Rajoy presidenteak argi esan zuen maiatzaren 10ean *Correo* egunkariari emandako elkarrizketan: Estatuan bultzada merezi duen abiadura handiko proiekturik bada, Euskal Y da.

Errentagarritasunik gabeko egitasmoa dela kontuan izanda ere, zilegi litzateke Euskal Y geldiaraztea, lanaren erdia eginda dagoen honetan? David Hoyosek baietz uste du

Nola Madrilek hala Gasteizek eta Iruñeak abiadura handiko trenaren defentsa sutsua egitea ez da berria, baina aipatutakoen tankerako adierazpenak zeharo ugaritu dira azken hilabeteotan. Ez da kasualitatea. Euskal Y inoiz ez bezala dago bere sustatzaileen babes beharrean, jendartean inoiz baino zalantza handiagoak eragiten baititu proiektuaren bideragarritasunak. Haren aurkako jarrera ez da, dagoeneko, ekologisten tema bakarrik. Mundu akademikotik datozen datuak garbiak dira: abiadura handiko trena ez da sozialki errentagarria ia inon, eta nekez izango da Euskal Herrian.

Hori gutxi balitz, hautsak harrotu dituen datua zabaldu zuen Pastor ministroak Bergarako bisitaldian: AHTren abiadura ez da hasieran iragarri bezain handia izango. Hala, EAEko hiru hiriburuen arteko bidaia-denborak aurreikusitakoak baino sano luzeagoak izango dira: 43 minutu Bilbo eta Gasteiz lotzeko –28 minutukoa izango zela iragarrita zegoen–, eta 55na Donostia eta beste bietako edozeinen artean –17 minutu gehiago Bilbora, 21 gehiago Gasteizera–. Argudio bat gutxiago Y-aren alde.

Inbertsioa berreskuratzea oso zaila da

Martxoaren 4an, EH Bilduren eskariz, Germà Bel eta David Hoyos ekonomialariek –lehenbizikoa Espainiako Gobernuaren aholkularia izan zen garraioaren alorrean, 90eko hamarkadan– agerraldia egin zuten Eusko Legebiltzarreko Ingurumen eta Lurralde Politikaren Batzordean. Biek ala biek azpimarratu zutenez, abiadura handiko trenaz egindako ikerketek adierazten dute ia inoiz ez dela azpiegitura errentagarria. Izan ere, munduan linea bitan baino ez da lortu eraikuntza gastuak berreskuratzeko adinako bidaiari kopurua: Tokio-Osaka (urtean 150 milioi bidaiari inguru) eta Paris-Lyon (25 milioi, ia Espainiako Estatu osoko linea guztiek beste).

Ekuazioa sinplea da: abiadura handiko trena oso azpiegitura garestia da, eta ez dago inbertsioa berreskuratzerik bidaiari kopurua biziki handia ez bada. Aipatutako bi adibideez landa, linea bakar batek ere ez du lortu

Euskal Y-ren eraikitze lanak, Bergara eta Beasain arteko zatian.

errentagarritasun atalasea gainditzea. Zehazki esanda, hainbat ikerlanetik ondorioztatzen da abiadura handia nekez justifika daitekeela sozialki, lehen urteko bidaiari kopurua gutxienez zortzi milioikoa ez bada.

Euskal Y-ren eskariari buruz egindako azterketen arabera, EAEko AHTn sei milioi eta erdi ibiliko dira asko jota. Eta ildo horretan, komeni da Germà Belek Legebiltzarrean esandako zerbait gogoratzea: abiadura handiko tren proiektuetan, aurreikusitako eskaria beti izaten da handiagoa benetakoa baino. Beste datu bat ere eman zuen Belek: eskaintzaren eta eskariaren arteko desoreka handiena Espainiako Estatuak du. Izan ere, eraikitako AHT kilometro gehien daukan munduko bigarren herrialdea da, Txina eta gero.

Biztanleko kilometro kopuruari dagokionez, berriz, txapelduna da alde handiz Espainia, eta alde hori are handiagoa izango da aurreikusitako lineak eraikitakoan: 80 kilometro AHT milioi biztanleko. Frantziaren bi halako, Txinaren zazpi halako. Eskarian, aldiz, datuak alderantzizkoak dira: trenbide kilometro bidaiari kopurua sei aldiz handiagoa Frantzian Espainian baino. Alemanian, lau aldiz. Italian, hiru.

Aldeko argudioak gezurtatuz

Legebiltzarreko agerraldian, David Hoyos EHUko ekonomialariak esan zuen Euskal Y-aren egokitasuna defendatzeko erabili ohi diren lau argudio ez liratekeela erabili behar, esku artean daukagun ebidentzia enpirikoa-

AHTren zenbait datu

Mugimendu guztien %1

EAEn egunero **6 milioi** lekualdatze daude. Erdia oinez egiten dira, eta heren bat autoz. Y-ak hartuko dituen ibilbideetan lekualdatze guztien **%1** egiten da.

Inpaktu ekonomikoa

Eusko Jaurlaritzaren esanetan AHTk **15.000 milioi euro**ko inpaktua izango du ekonomian. Inpaktu horren **%98** eraikuntza fasean (eta eraikuntzaren sektorean) ematen dira.

Tunelak eta zubiak

Euskal Y-aren luzera guztira:	171 km
Lur gaineko ibilbidea:	50 km (%30)
Tunelak:	104 km (%60)
Zubiak:	17 km (%10)

*Tunel eta zubietan, kilometro baten mantenu-kostua ohikoaren bi halako da.

EAEko errepide zirkulazioa %0,2 arinduko du

Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, AHTri esker **3.300** ibilgailu desagertuko dira egunero EAEko errepideetatik. Hau da, trafiko bolumen osoaren **%0,2**, eta Y-ak beteko dituen korridoreetako trafikoaren **%6**.

Diru gehien daukatenentzat

2008an Frantzian egindako inkestaren arabera, AHT bidezko bidaien **%28** errenta altuena daukaten hiritarren **%10ek** egiten du. Lautik hiru bidaia, errenta altueneko hiritarren erdiak.

Hiriburuen arteko bidaia denborak



ren arabera. Hauek dira Hoyosek gezurtatutako lau argudioak: AHT sozialki errentagarria da, trafiko pilaketak arinduko ditu, jendartearen gehiengoari mesede egingo dio eta ingurumen aldetik jasangarria da.

Errentagarritasun sozialaz den bezainbatean, Germà Belek emandako datuetan oinarritu zen Hoyos, hein handian. Halaber, gogorarazi zuen abiadura handian inbertitutako euro bakoitza beste nonbait inbertitu ezin izango den euroa dela. "Gure buruari egin behar diogun galdera da ea jendartea hobeto biziko den proiektu honi esker", esan zuen EHUko ikerlariak. Eta Espainiako Estatuan bidaiari gehien

AHT linea errentagarri bi besterik ez mundu osoan

Munduan AHT linea bi baino ezin daitezke jo finantzarioki errentagarritzat (eraikuntza kostuak berreskuratzeko adina mozkin sortzen dute): Tokio-Osaka eta Paris-Lyon. Badirudi azken urteetan Txinako Jinan-Qingdao linea ere ozta-ozta sartu dela zerrenda labur honetan.



daukan abiadura handiko tren linearen adibidea aipatu zuen: Bartzelona-Madril.

Egin diren analisi ekonomikoen arabera, Madril eta Bartzelona arteko AHT eraikitzeak ongizate galera eragin du, eta galera hori dirutan neur daiteke: 5.000 milioi euro inguru, Hoyosen berbetan. Estrapolazioa egin daiteke Euskal Y-ra? "Oso informazio gutxi daukagu, baina daukagun apur horretatik ondorioztatu daiteke egitasmo honen errentagarritasun soziala negatiboa izango dela".

Eusko Jaurlaritzak zabaldu izan du AHTk 15.000 milioi euroko inpaktua izango duela EAEko ekonomian. Datu horri ñabardura

ABIADURA HANDIKO TRENA

Ekainaren 13an Euskal Y-ren aurkako manifestaziora deitu du AHT Gelditu! elkarlanak. Egitasmoaren kontra kalean inoiz baino giro biziagoa dagoela uste dute.

zeharo garrantzitsua erantsi dio Hoyosek: inpaktu horren %98 proiektuaren eraikitze-fasean gertatzen da. Izan ere, eraikuntza sektoreari eragiten dio. "Eskola bat eraikitzearen inpaktu sozial handiena eraikina dela esatea bezala da, niri harrigarria iruditzen zait". Eraikuntza aparte utzita, Hoyosek azpimarratu zuen abiadura handiko trenek ez dutela jarduera ekonomiko berririk sortzen, literatura akademikoak frogatzen duenez. Euskal Y-ren alde aipatu ohi den turismoaren balizko suspertzea ere oinarririk gabeko aurreikuspena dela diote bai Hoyosek bai Belek. Datuak eskuetan, ezin daiteke ezer segurutzat jo. Baliteke AHTk bisitariak erakartzea, eta baliteke kentzea ere.

Gutxiengo batentzako proiektua

Errepidezko zirkulazioan AHTk izango duen eragina txikia da David Hoyosen iritziz. EAEn egunero egiten diren sei milioi lekualdatzeen –horien erdia oinez egiten dira, eta heren bat autoz– %1 baino ez da egiten abiadura handiko trenak beteko duen korridoreetan. Eusko Jaurlaritzaren arabera Euskal Y-ri esker egunero errepideetatik desagertuko diren 3.300 autoak korridore horietan dabiltzanen %6 baino ez dira, "eta EAE osoan dabiltzanen %0,2", Hoyosek nabarmendu duenez.

AHTren ibilbideak mugikortasun guztiaren %1i besterik ez eragitea da, hain segur, Euskal Y jendarte osoaren onerako proiektua ez dela sustengatzeko Hoyosek erabili dituen argudioetako bat. Bestea, berak baino lehenago Germà Belek ere aipatutakoa, 2008an Frantzian egindako inkesta baten emaitza da: abiadura handiko trenak diru gehien daukatenei egiten die mesede batez ere.

Inkesta haren ondorioa izan zen AHT bidezko bidaien %28 errenta altueneko biztanleen %10ek egiten duela. Lau bidaiatik hiru, berriz, errenta altueneko herritarren erdiak. Espainiako Estatuan ez da halako azterketarik egin, baina abiadura handia indarrean dagoen eskualdeetan fenomeno bat behatu da honezkero: tren arruntaren ohiko erabiltzaileek gero eta maizago jotzen dute errepidera. Besteak beste, Renfe konpainiak aldiri trenen salneurriak igo dituelako azken urteotan, abiadura handiko ibilbideen ustiapenak sortutako defizita berdintze aldera.

Ingurumen-jasangarritasunari dagokionez, Hoyosek dio AHT ez litzatekeela alternatiba berdetzat aurkeztu behar. Hona Germà Belek emandako datua: hegazkina ordezkatzen ari den eta urtero 8-10 milioi bidaiari dituen linea batek 30 urte behar ditu eraikuntzan isuritako CO_2 kopurua berdintzeko. Ez da euskal kasua, esan gabe doa. Hoyosen kalkuluen arabera, Y-ak ehun urte beharko ditu bere "karbono zorra" kitatzeko. Hori guztia, azpiegiturak berak sortutako bestelako inpaktuak kontuan izan gabe: lurraren okupazioa, "hesi" efektua...

Erdia eginda egon arren, birpentsa dezagun

Euskal Y-ren eraikuntza proiektuaren erdian gaude. 3.000 milioi euro inguru xahutu dira orain arte, eta gutxienez beste horrenbeste xahutuko dira. Gehiago, seguruenik. Errentagarritasunik gabeko egitasmoa dela adierazten duten adierazle guztiak aintzat hartuta ere, zilegi litzateke hura geldiaraztea, behin honaino iritsita? David Hoyosek baietz uste du, eta halaxe jakinarazi zien Eusko Legebiltzarreko Ingurumen Batzordean entzule zituen politikariei.

Aurrera jarraitzekotan, proiektua eraldatu eta geltoki gehiagoko abiadura arrunteko trenbide bihurtzeko aukera aztertzeko eskatu zuen Hoyosek. Beraren ustez, dauzkagun datuei erreparatuta litekeena da Euskal Y-k ohiko esplotazio gastuak kitatzeko adina etekin ere ez ematea. Urtez urte diru publikotik edatearen menpe egongo litzateke haren bideragarritasuna, eta horrek ez luke justifikazio handirik, gogoan izan behar baita AHT ez dela funtsezko premia bat asetzeko diseinatutako garraiobidea.

Ildo horretatik, susmo bat agertu zuen EHUko irakasleak: EAEko hiriburuen arteko bidaia-denborak handituz, Euskal Y *de facto* tren arrunta izan dadin urratsak ematen ari ote da Adif, Espainiako trenbide-azpiegiturak kudeatzen dituen konpainia?

Testuinguru horretan dator ekainaren 13an AHT Gelditu! elkarlanak Donostian deitutako manifestazioa. Mikel Alvarez elkarlaneko kidearen esanetan, inoiz baino giro biziagoa sumatzen da kalean Euskal Y-ren aurka, "baina ez da ahaztu behar orain arte ez dela lortu Hego Euskal Herrian benetako herri erantzuna ematea". Eta gainera, lanak hasita egoteak lozorroan utzi du erantzun soziala zenbait eskualdetan, Alvarezen ustez. Eztabaida berpizteko unea iritsi da, nonbait. ■

TATIANA NAGORNAYA

«Txandala eta oinetakoak besterik ez nekartzala etorri nintzen Moskutik Eibarra»

Neska txikiak dira eta gimnasia erritmikoa egiten dute. Asko, maila bikainean ari dira. Makina bat dira gure euskal herrietan, klubak osaturik. Horietako bat dugu Ipurua, Eibarren. Entrenatzaile taldean, errusiarra Tatiana Nagornaya, eskarmentu handiko pertsona ondo jantzia.

| MIEL A. ELUSTONDO |
Argazkiak: Zaldi Ero

TATIANA NAGORNAYA

Gimnasia erritmiko entrenatzaile zara Eibarko Ipurua taldean. Aski kirol ikusezina gimnasia erritmikoa, nesken ekin estetiko zoragarria gorabehera…

Hau ez da Errusia! Han ikaragarri publizitatzen da gimnasia erritmikoa. Politikariek ere ez diote muzin egiten lantegiari. Hedabideek, berriz, zer esanik ez. Publizitatea handia da, eta neska txiki guztiak aritzen dira gimnasia egiten. Izan ere, ez da gimnasia erritmikoa egitea bakarrik. Gimnasia egiteko adina eta gero, bost ate baino gehiago ere irekitzen dizkizu lehenagotik egin duzun ekintzak: dantza egin dezakezu, musika interpretatu… Gimnasia erritmikoak koordinazio handia ematen dio neska txikiari, diziplina handia bizi guztiko. Nik uste hori gauza inportantea dela, norberarentzat ez ezik, herrialdearentzat. Futbolaz beste ere behar da zer edo zer. Saskibaloian ari direnak ere kexu dira, futbola besterik ez dagoelako, eta, jakina, gehienbat mutilek egiten dute futbolean.

Hau ez da Errusia, baina gimnasia erritmikoaren onurak aldarrikatu ohi dituzu zuk.

Neska txikiak dantzan hasten dira, beren burua adierazten hasten dira, gauza asko ikasten. Eskolan ikasten dutenaz gainera, hango gorputz hezkuntza eta gainerako, taldearekin konektatzen hasten dira, lehiatzen, herri txikitik nahiz hiri handitik irteten… Horrek herrialdeari sekulako ekarpena egiten dio, gero neska horiek, bizialdian zehar, bestelako exigentziak izango dituztelako. Gurasoak ez dira irakasle bakarrak, biziak berak erakusten du, eta horretan gimnasia erritmikoa bide ederra da.

Euskal Herrian badira gimnasia erritmiko ekipo bikainak, Gasteizen eta Leioan, Donostian, Amurrion, Tolosan eta Iruñean. Eta Eibarren, jakina! Haien lan ederra ezkutuan igarotzen dela iruditzen zait, ordea. Etsigarria ez al da?

Baliteke, bai. Euskadiko kluben lana izugarria da, oso handia. Beldurgarri saiatzen dira, eta emaitzak ez dira kamutsak. Urratsez urrats ari dira aurrera. Horien lana erakustea inportantea iruditzen zait; ez erakustea aldiz, penagarria. Nik uste denon artean saiatu behar dugula gure lana zabaltzen. Baina hasteko, entrenatzaileok, dena delako txapelketatik etorri eta hurrengoa prestatzeari ekiten diogu buru-belarri. Ondoren, beste bat etorriko da. Uste dut pertsonaren bat beharko genukeela gimnasia erritmikoa zabaltzeko hedabideetan. Komunikazioa, alegia. Denboraldi hasiera zertan den, tarteko erakustaldi eta gorabeherak, txapelketak, denboraldi amaiera… Entrenatzaileak ezin lezake horrelakorik egin. Eta albistea lagunen artean zabaltzeak bakarrik ez du balio. Inoiz esan izan digute: "Egunkarian ikusi zaituztegu. Txapelketako lan ona aipatzen zuen!". Eta nik: "Ondo da, eta zein txapelketaz ari ziren?". Otsailean hasi eta uda bitartean, ez dugu etenik!

Koska guztiak

"Badakit Eibarren ez dudala topatuko Kavaevarik [Tashkent, Uzbekistan, 1983, inoizko gimnastarik onenetakoa]. Hala ere, hemengo gimnastak ere badu bere helburua, eta nire lana da urratsez urrats, pausoz pauso, hari helburu horretara hurreratzen laguntzea. Gure gimnastek ere goienean dauden kirolarien mailara iritsi nahi dute, jakina. Horretarako, ordea, lan egiten ikasi behar da, jendea errespetatzen ikasi, gimnasia ezagutu… Koska guztiak igaro behar dituzu helburua lortzeko".

Sarri, kirolen gogortasunaz mintzo da jendea, ziklismoa eta gainerako. Gimnasia erritmikoaz ere horixe aditzen da: kirol gogorra dela, astean hamalau ordu ere entrenatzen direla…

Edo gehiago! Kirolarien lana dago, batetik, eta entrenatzaileona, bestetik. Gure lana da entrenamenduan ariketa fisiko ezberdinak egitea, jolasa tartekatzea, talentua izatea. Alegia, ezin duzu kirolaria zukutu eta zukutu eta zukutu ibili, arnasa eman behar diozu, haren interesa deskubritu, eta horren arabera jokatu. Eskolan ere ez zara lehenengo mailatik azterketak egiten hasten. Neska txikiak ilusio handiz datoz gimnasiara, gimnastak ikusi dituztelako telebistan, edo ondoan dauzkatelako. Hortaz, hastapenean, neska txikiari ateak ireki behar dizkiozu, ikus dezan, ilusioa izan dezan, jolas dadin eta gozatu. Eta, beti, aldiro-aldiro urrats bat aurrera egin dezan saiatu. Horretarako, bakoitzaren ezpala ezagutzera iritsi behar duzu, batzuk era batekoak direlako, eta beste batzuk bestelakoak. Batarentzat balio duenak ez du beti bestearentzat balio. Eta ekipoa sortu, eta urtean-urtean urrutirago eraman. Guk inoiz ez ditugu izango telebistan ageri ohi diren neska txiki miragarrizko horiek, hori luxu hutsa da. Gu ez gara Moskuko taldea! Baina baten bat ona baldin badator, eta beste batekin edo beste batzuekin batera ekipoan sartzen bada, bertan irauten badu, entrenamenduetan zaintzen baduzu –batean teknika, bestean erresistentzia, gaur jolasa, bihar aparatua–, bada, erraza da lan gogor hori barneratzea, horretara ohitzea, eta, azkenean, ekipoak familia bat osatzea eta lehiaketara joan eta egindako lana gorabehera handirik gabe erakustea. Ez da hain gogorra, beraz. Neskek gozatu egiten dute.

Zein da entrenatzailearen helburua?

Taldea ahal duen tokira eramatea. Baliteke nazioarteko mailara ez heltzea, ezta estatu mailakora ere, baina zertan ez ditu lagun onak egingo bere mailan, eskolarteko txapelketan, edo herrian bertan, ekipoko gimnasten artean? Gainera, hemen baduzu aski abantaila, askotariko mailak baitituzue: senior, jubenil, amateur, kadete, infantil, benjamin… Maila asko. Eta badira behe mailan batere gai ez direnak, baina, halako batean, loratzen diren gimnastak!

NORTASUN AGIRIA

Tatiana, *Tania,* Nagornaya (Mosku, 1961). Txikitandik murgildu zen gimnasia erritmikoan, eta 10 urte zitueneko bazekien entrenatzaile izan nahi zuela. Horretarako ikasketak egin zituen Moskuko Unibertsitatean, eta Moskuko Dinamo gimnasia taldeko entrenatzaile izan zen. Ingalaterrako selekzioan ere jardun zuen lanean. 1993an heldu zen Eibarra, Ipurua taldera entrenatzera, eta bertan da harrezkero. 2001ean Espainiako selekzioan lan egiteko deitu zuten eta bertan izan zen 2004 arte. Eibarko Ipurua taldearen emaitza onen arduradunetako bat da, dudetako matazarik gabe.

Arestian esan dugunez, hainbat dira gimnasta hauen entrenamendu orduak. Aldiz, lehiatzera joan eta minutu eta erdi irauten du haien emanaldiak.

Gimnastak hori ere ikasi behar du.

Ariketa bat bera hamaika aldiz eginagatik ere, ordea, baliteke lehiaketa unean aparatua erortzea. Pikutara gimnastaren lan ona!

Ez, ez. Gimnastak hori ere ikasi behar du. Koordinazioa zaila da, eta zure gorputzaz besteko aparatua hartzen duzunean, dela uztaia, dela zinta, dela pilota, soka edo mazoak, are eta nekezagoa. Baina gimnastak bere burua prestatu behar du, eta lehenik, pertsona den bezala: fisikoki eta psikologikoki. Eta txapelketatik txapelketara, gailur jakin batera eraman behar duzu gimnasta: ez da berdin denboraldiaurrea edo amaiera. Aparatua erortzea ez da harrigarria, eta ez da gauza bakana ere, nahiz eta guztiz nabarmena den ikuslearentzat. Baina aparatu erorketa guztiek jatorri bera dute, ez zaizkio zor mugimendu horrixe dagokion zailtasunari, aurrekoari baizik! Kontzentratuta irten behar duzu lehiatzera, hotz xamar aukeran, egoera kontrolatzen duzula: mugimendu batetik bestera nola igarotzen zaren sentitu behar duzu, zailtasun batetik bestera. Errobot baten moduan jardun beharra dago, hein batean bederen. Esan nahi dut, nahikoa dela pieza bat falta izatea, errobotak behar bezala ez funtzionatzeko. Gimnastak ere derrigorrak ditu mugimenduen arteko konexioak egitea. Ez du balio mugimendu zailenetan bakarrik kontzentratzea, horrek, askotan, mugimendu errazagoetan kale egitea ekarri ohi du eta.

Publikoaren zalapartak laguntzen du, ala zailtzen, neska txiki edo gazte kirolariaren jarduna?

Publikoa hor dago beti, baina baita norberaren estres maila ere, edo etxean lehiatzea, edo dominarik ez izatea jokoan, edo jokoan izatea… Elementu asko dira, eta horretarako behar da hainbeste lan, horrexegatik entrenatu behar du hainbeste bere gorputza, hastapenetik. Zure organismoaren azken-azkeneko giharraren mugimenduak zertan diren ezagutu behar dituzu, haien lanaz baliatzeko. Ikusgarria da gimnasia erritmikoa, neska txikiek ikusgarrizko lan ederra egiten dute, baina horretarako, gorputzaren kontzientzia erabatekoa izan behar da, oinetatik tximetaraino. Eta beroketa ariketak egiten dituztenean ere, horrelaxe berotu behar dute: oinetatik tximetaraino. Horregatik egiten dute,

lehiatu behar dutenean, ordu eta erdiko beroketa. Gihar guztiak aktibatu behar dituzte.

Zer da gimnasia erritmikoa? Kirola da, baina badu baletetik, badu estetikatik asko, dantzatik ere bai, musikaren interpretaziotik ez gutxi…

Hori dena, batera. Horregatik jakin behar dugu entrenatzaileok biomekanika, fisiologia, anatomia, psikologia… Denetik. Baina, jakina, horrek esan nahi du gehiago entrenatu behar dela, lan hori egin ahal izango duten neska txikiak aukeratu egin behar direla… Klubean neska asko izateak, klubari bizirauten laguntzen dio. Bestalde, gimnasta hautatu batzuk izan behar dituzu, urrutiago joateko. Baina guztiak egon behar dira pozik, batzuk eta besteak, denak.

Gasteizen ikusi ahal izan dudanez, zenbait klubetan zenbait entrenatzailek garrasika hartzen ditu gimnastak. Neska txikiak pozik edukitzeko moduan!

Ez dakit, bada, hori. Nik badakit zergatik egin izan dudan garrasi noiz edo noiz.

Maila

"Eibar ez da handia, ez da Mosku, eta zaila da hemen lehenengo mailako izarrik izatea, eta, aukeran, taldeka lehiatzen gara, eta ez gara gaizki ari: 2001ean Espainiako Txapelketa irabazi genuen, eta 2007an ere bai. Etorri nintzen urtean, azkenak izan ginen. Orain, aldiz, maila onean lehiatzeko gai gara".

AZKEN HITZA

Izarraren bidea

"Behin maila goreneko entrenatzaile batek esan zidanez, gimnasta bakoitzak bere izarra du, eta izar horretara iristeko bere bidea gimnasta bakoitzak. Entrenatzailearen lana da gimnasta hori –pertsona hori– bere izarraren bidean jartzea, halako moldez non izarra ikusten duen egunean gimnasta horrek jakingo baitu zer egin izarra eskuratzeko".

Ez naiz ari noiz edo noizko garrasiaz, egunerokoaz baizik.

Zergatik egiten du garrasi pertsona batek? Noiz egiten du garrasi? Gainezka egin duenean, besterik egin ezin duenean. Orduantxe dator garrasia. Sokorri eske bat bezala da. Nik neure buruari egin izan diodan galdera: "Zergatik egin diot garrasi?", "neska txikia ez delako ondo ari". "Eta zergatik ez da ari ondo neska txikia?". Atzera joateko joera dut, galdezka, erantzun bila: "Zergatik? Zergatik? Zergatik?". Horrela jarduten dut nik neure buruarekin, eta, horrela, konturatzen naiz delako neska txikiak astebeteko entrenamenduan huts egin duela. Adibidez. Eta, hala ere, gainerako gimnastei bezala ari naizela eskatzen astebetean huts egin duenari. Eta, neure burua garrasika ikusten dut, entrenamendua amaitzeko hogei minutu geratzen zaizkidalako, kiroldegiko argiak amatatuko dizkidatelako, egun horretako plana ez dudalako bete oraindik, biharamunean txapelketa dudalako eta neska txikia urduri ari delako: orduan ez da garrasia besterik ateratzen! Eta nola berreskuratu galdu duzun denbora? Berriro ekin beharrean zaude, garrasiak gimnasta blokatu besterik ez baitu egiten!

Errusiarra zara, Eibarren lanean.

Ez luzaz. 54 urte ditut, eta urte askorik ez zait geratzen gimnasia entrenatzaile lanean. Dena dela, lana izan da beti nire bidea. 6 urte nituela hasi nintzen gimnasia erritmikoa egiten eta 10 urte nituenerako banekien entrenatzaile izango nintzela. Banekien. Eta, beti, inguruko jendeaz informazioa biltzen saiatu naiz, hura ezagutzen –izan punta-puntako gimnasta, izan maila apaleko gimnasta–, ahal duen lekura iristen laguntzeko. Baina gimnasta haiek ez doaz bakarrik, beraiekin batera noa neu ere, eta ikaragarri gustatzen zait bide hori egitea.

1993an etorri zinen.

Otsailaren 21ean. Hiru hilabeteko! Omen! Beste baten ordezko etorri nintzen, Ipurua

klubera. Ni Moskun ari nintzen lanean, Moskuko Dinamon, eta txandala eta oinetakoak, besterik ez nekarren, ez paper ez agiri, bisitari nentorren. Orduko presidenteak esan zidan: "Karnabaletan etorri zara –nik ez nekien zer zen karnabala, Moskun ez baita ospatzen–, eta txapelketa duzu hamar egun barru". Eta ez nekien gaztelaniaz ere! Ez dakit nola entenditu genuen elkar. Bestalde, ni ordurako lan egina nintzen Moskun, banuen nire lan egiteko metodoa, ez nuen hamar eguneko programarik. Eta poliki-poliki hasi nintzen. Jakina, hemengo jendea! Eta hemengo bazkariak egin beharra, eta afariak, eta ezteiak, jaunartzeak, jai eta festak, eta larunbata eta igandeak jai… "Bihar joango da umea" esan bai, baina umea etortzen ez, eta, horrela, ekipoa osatu? Eta non zen diziplina, eta gimnasia erritmikoa bera, eta lehiatzeko gaitasuna? Gorriak ikustekoak ginen! Baina bidea egin dugu. Honaino heldu gara!

Zer etorkizun du zain gimnastak kirola utzi eta gero, 18-20 urtetan?

Gimnasten amek esaten didate: "Eskerrik asko, Tania, neska zoragarriak ditugu. Badakite zer nahi duten, eta zer egin behar duten hura lortzeko. Bizian ere gimnasian bezala dabiltza: diziplinatuak dira, ondo antolatuta bizi dira, familiak osatu dituzte…". Gimnasian egiten duen bideak bizitzeko ere balio dio gimnastari. Bide bera da, finean. Bestalde, entrenatu ditudan neskak hazi, ezkondu, umeak izan eta haiek gimnasiara ekarriko dituztela esaten didatenean loriatan naiz, sekulako poza ematen dit, sekulakoa. Beren umeak gimnasia erritmikoa egitera ekartzea, jakinda sakrifizioa dela, gogorra dela… Bada, nik ez daukat hitzik, poza besterik. ■

HARROBIA IKASTOLA

Langile euskaldunen harrobia lantzen

Ikastola ezohikoa da Harrobia: Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzen ditu euskaraz Bilbon, duela lau urtetik. Aurtengo Ibilaldia antolatzeaz arduratu den ikastetxe honetan, gainera, adindunentzako ariketa fisikoa dute ikerketagai, egitura argirik ez duen gaiari oinarri sendoagoak jartzen laguntzeko xedez.

| ITZIAR UGARTE IRIZAR |

2011KO AZAROTIK dago martxan Bilbo Zaharreko Harrobi plazan izen bereko ikastola eta proiektua. Aitzindaria hamar urte lehenago sortu zen Portugaleten: Ibar Ezkerra Lanbide Ikastola. Bertan ekin zioten euskaraz Lanbide Heziketako ikasketak eskaintzeari, harik eta 2011n jarduera Bilbora aldatu zuten arte.

Atzerago joaz, 2004an ikastolen kolektiboak Lanbide Heziketan sartzeko asmoa agertu zuen publikoki, helburu bikoitzarekin: batetik, arlo horretan euskararen normalizazioa sustatzea, eta bestetik, Lanbide Heziketako ikasketetan ikastolen eredua zabaltzea. Bizkaiko zazpi ikastolak beren gain hartu zituzten asmo horiek, eta egitasmoa Bilboko Harrobia plazan gauzatzea adostu zuten; Leioako Betiko Ikastolak, Bilboko Abusu eta Urretxindorrak, Santurtziko Bihotz Gazteak, Galdakaoko Eguzki Begik, Balmasedako Zubi Zaharrak eta Trapagarango Itxaropenak. Elkartutako ikastola horiek Harrobia Fundazioa sortu zuten 2006an, eta erakunde hori da Harrobia ikastolako eraikinaren jabea. Aurrera begira, Bizkaiko beste ikastola batzuk proiektuan integratzea nahi dute.

Argi dute Harrobia ikastolan: "Ibilaldiaren lehentasuna gure lana ezagutaraztea da, askok ez baitaki Lanbide Heziketako ikastolarik dagoenik ere".

Jatorrian bezala, fundazioaren helburu nagusiak bi dira: Lanbide Heziketa eta "euskarazko prestakuntza eta enplegu-jarduerak" sustatzea eta ekonomia soziala oinarri duten enpresak bultzatzea. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ondorengo irakaskuntzan euskararen egoera eta euskara lan-munduan barneratzeko aukerak zein diren ikertzea ere badute xede.

Zahartze aktiboa

Duela bi hilabetetik, adindunentzako ariketa fisikoari buruzko programa bat dute esku artean. Harrobia ikastolako Gorka Mutuberria irakaslea buru-belarri dabil ikerketan, hara eta hona hitzaldietara eta esperientziak ezagutzera joanez. Azaldu digunez, oraindik ikerketaren hastapenetan daude, bibliografia guztia bildu eta arlo pribatu zein publikoan dauden programak begiratzen, azterketa egindakoan proposamen zehatz bat osatzeko.

"Lehenengo helburua da pertsona zaharrekin ariketa fisikoa nola aplikatu ikustea; ondoren, ikusitakoaren eta izandako esperientziaren arabera geure programa propioa sortzeko", azaldu du Mutuberriak. Programa pilotu bat jarriko dute martxan, aurreikusitako teknikak eta tresnak talde txikiekin probatzeko. "Behin ondorioak aterata, proiektua enpresetan eta arlo publikoan txertatzea da azken asmoa". Uda ostean hasiko dira aplikazioarekin, eta programa finkatuta dagoenean, formakuntza saioak eman eta ahal den neurrian enpresetan txertatzen hastea aurreikusten dute.

Lanbide Heziketako ikasketetan euskara sustatzea eta ekonomia soziala oinarri duten enpresak bultzatzea, Harrobia ikastolaren helburuetako bi

Bide honetan, Tknika Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketarako berrikuntza zentroaren laguntza dute. Tknikaren helburuen artean dago Lanbide Heziketako zentroen eta enpresen arteko lotura indartzea, eta hori da hain zuzen Harrobia egiten saiatzen ari dena.

Bizkaiko 16 eta 65 urte bitarteko pertsonei zuzendutako prestakuntza-proiektu euskalduna den neurrian, lan mundura salto egiteko lanbide prestakuntza eskaintzen du. Egun, enplegurako lanbide heziketan enpresei zuzendutako zerbitzuak eta formazio-ikastaroak ematen dituzte; tartean, orientabide-zerbitzuak, prestakuntza-ekintzak, ekintzailetza jarduerak eta administrazio publikoarekin lankidetza.

Bestalde, Goi mailako Kirol Zikloa (Gorputz eta Kirol Ekintzen Sustapena) eta Informatikako Erdi mailakoa (Mikroinformatika Sistemak eta Sareak) ere eskaintzen dituzte.

Formakuntza

Ikerketa garatu bitartean, formakuntza saioetarako ere hartuko dute tartea, Harrobiak ohiko duen legez. "Formakuntza ikastaroetan esperientzia daukagu, osasunaz eta ariketa fisikoaz hainbat kurtso ematen ditugu; besteak beste, indarraren inguruko tailerrak, arazo kardiobaskularrei buruzko formakuntza edo bizkarrezurreko arazoak dituztenentzako hitzaldi bereziak".

Orain arte baina, ez dute inoiz hirugarren adinekoei zuzendutako programarik gauzatu, eta Mutuberriak azpimarratu duenez, "kolektibo berezia" izanik, dituen berezitasunak aintzat hartzea ezinbestekoa da.

Kolektibo guztietan gertatu ohi denez, gainera, talde hau ere ez da homogeneoa. Ariketa fisikoa lantzen duten taldeetan, gela berean oso maila ezberdinak elkartzen direla dio; sarri askotan bakoitza bere osasun gorabeherekin, arazo metabolikoak direla, edo gihar eta artikulazioetakoak, adibidez. Pertsona bakoitzak behar dituen ekintzak izan ditzan, antolaketa hori egoki kudeatzea oinarrizkoa dela dio. Hor ere, baina, ezagutza falta sumatzen du Mutuberriak: "Kirol sektoreko adar ugaritan osasunaz ez dago formakuntza askorik eta eskaintza urria da".

Elkarlanaren beharra

Adindunentzako ariketa fisikoan eragina izan dezaketen profesionalen artean, adostasun falta eta elkar-loturen gabezia handia dago. Hori da orain arte ikertutako esperientzietatik atera duten ondorio nagusia: "Puntu honetan oso atzeratuta gaude. Gizartearen-

Ariketa fisikoan oinarritutako programa bat lantzen ari dira Harrobian, hirugarren adinari zuzendua. Medikuekin hitz egin dutenean, adibidez, askok diote arazoak dituztela ariketa fisiko egokiak prestatzeko.

tzat ez da gai arrotza, baina arlo pribatu zein publikoan formakuntza eza eta ezjakintasuna handia da".

Oinarri falta nabarmendu du Mutuberriak. Esaterako, Osakidetzakoak gaia tokiko udalarekin nola kudeatu ez dakitela antzematen du, baita alderantziz ere. "Medikuekin egon garenean, askok diote arazoak dituztela ariketa fisiko egokiak prestatzeko. Haiekin eta beste profesional batzuekin elkarrizketak izaten ari gara, bakoitzaren funtzioa zein den jakiteko", azaldu du.

Proiektua ezagutaraztea

"Ibilaldia jaiaren lehentasuna gure lana ezagutaraztea da, askok ez baitaki Lanbide Heziketako ikastolarik dagoenik ere", adierazi du Mutuberriak. Formakuntza eta zikloak euskaraz ematen dituztela ezagutaraztea funtsezkoa dela dio. "Proiektu nahiko berria delako ere izan daiteke askok gure berri ez izatea, horregatik gustatuko litzaiguke Ibilaldiari esker jendeak gure lana ezagutzea, bide batez, egitasmo berriei ateak zabaldu ahal izateko".

Erabiltzen duten eraikineko bi solairu hutsik daude, eta ekintza berrien bitartez erabilera eman nahi diete, euskara eta Lanbide Heziketa ikastolen bitartez sustatzen jarraitzeko. Lanbide Heziketaren, euskararen eta lan munduaren arteko lotura ikastolen mugimenduaren baitan aurrera eramatea berezia da; eta beraz, nabarmendu digu Mutuberriak, berezia izango da Ibilaldia bera ere. ■

Harro ibili

BILBON 2001ean ospatu zen azken aldiz Bizkaiko ikastolen jaia, Abusu ikastolaren eskutik. *Harro ibili* leloarekin itzuliko da maiatza amaieran: "Indar handiko bi hitz Euskal Herriko Lanbide Heziketaz harro gaudelako, eta gizartean jazotzen diren aldaketetara egokitzea ibiliz egin beharko dugulako". Hori da euskal gizarteari, enpresei eta ikasleei zuzendu nahi dieten mezua. Hartara, festaren logoan ikastolaren eraikina ibiltzen irudikatu dute, "ikastolen proiektua eta zehazki Lanbide Heziketarena mugimenduan daudelako". Ikastolak batuko duen dirua Harrobia enparantzan erosi nahi duten eraikin berrirako izango da, bertako instalazio, ekipamendu eta zerbitzuak ordaintzeko. Aurtengo festaren helburu nagusiak hauek dira: euskara eta Bizkaiko Lanbide Heziketa bultzatzea; ikastetxea eta honen proiektua ezagutaraztea; Bilbo Zaharreko Harrobi Plazako ikastolaren eraikin berria ordaintzea; Bilbon euskara sustatzea kulturartekotasunaren bidean; eta Bilbori, eta Bilbo Zaharreko biztanleriari bereziki, lan mundura jauzi egiten laguntzea.

EROSKI Ibilaldiarekin

IBILALDIA 2015 · MAIATZAK 31 · BILBO

Maiatzak 31.
Zatoz Bilbon ospatuko den IBILALDIAra!

IBILALDIA 2015 • MAIATZAK 31 • BILBO

1975etik laguntzailea

EROSKI zurekin

DANI BLANCO

Lan dualtasuna

Mikel Zurbano

✦

EHUko irakaslea, ekonomialaria

HAUTESKUNDE GIROAN bete-betean sartuta gauden honetan, hazkunde xumea erabiltzen ari da PPren gobernua krisialdi amaiera irudikatzeko. Atzeraldiko sintoma nagusiak ez dira gehiegi aldatu, hor daude defizit publikoa –iaz ere ezarritako mailatik gora egin zuena– eta zor publikoa (BPGren %97,5, azken urtetako handiena) edo zor pribatua ezer gutxi jaitsi izana, baita deflaziorako joera ere. Nolanahi ere den, atzeraldiaren eragina batez ere lan merkatuan islatzen da Espainiako Estatuan eta, gutxiago bada ere, Hego Euskal Herrian. Lanaren egoera tamalgarriak eragiten du, hain zuzen, inkesta guztietan jendearen ustearen eta Madrilgo Gobernuaren iritzi mediatikoaren arteko talka.

Aurreko lan erreformek ez dute langabeziaren jaitsiera ekarri eta orain lan merkatuko dualtasuna gaitz guztien iturri gisa irudikatzea paradoxikoa da erreformen ondorio arrunta izan den neurrian

Jakina da Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundea (ELGA) edo Nazioarteko Diru Funtsa bezalako nazioarteko erakunde liberalak beraiek edo ekonomialari ortodoxoak ere ez datozela bat Espainiako Estatuko atzeraldiaren irteeraren iritziarekin. Horiek guztiek onartzen dute geldialdia ez dela eten, eta langabezia ugariak eta pobreziak luzaroan iraungo dutela. Arazoaren onarpen horrekin batera ekimenaren beharra azpimarratzen dute erakunde horiek, baina orain arte jorratutako bidetik jotzea eskatzen dute, lan merkatuko dualtasuna ekiditeko beste erreforma bat bultzatzea alegia. Aurreko lan erreformek ez dute langabeziaren jaitsiera ekarri eta orain lan merkatuko dualtasuna gaitz guztien iturri gisa irudikatzea paradoxikoa da erreformen ondorio arrunta izan den neurrian.

Langabezia garaia lan merkatuaren dualtasunak eragiten duela esatea okerra da guztiz. Lan merkatu dualean bi lan kategoria ematen dira, lan baldintza desberdinak dituztenak. Kategoria batekoek ziklo ekonomikoarekiko babes gehiago dute eta bestekoak oso zaurgarriak dira. Horrelako lan merkatuak lan egoera ezaberdinak ditu, baina horrek ez du zertan langabezia handitu, halabeharrez. Langabezia handitzeak soilik kategoria ahuleneko langileengan izango du eragina, modu sinplean esanda. Hots, bereizi egin behar dira langabezia handiagoa ala apalagoa egoteko arrazoiak eta langabeziak kategoria desberdinetan gehiago ala gutxiago eragiteko azalpenak. Ustez egoera dual hori sorrarazi duten instituzio eta arau berdinak egon dira langabezia maila apaleko garaietan ere.

Erreforma berriak ekarriko lukeen kontratu bakarrak, kaleratze automatikoa eta are merkeagoa bihurtuta, ez luke enplegu galera ekidingo eskariak erortzen jarraitzen duen artean. Eta funtsean langabezia garaiaren eta motelaldiaren arrazoi nagusia eskariaren izozteak izaten jarraitzen du, petrolioaren prezio jaitsierak, euroaren truke apalagoak, eta batez ere, Europako Banku Zentralaren diru hedatze masiboak behin behinekoz izozketa hori epeldu duten arren. Hain zuzen ere, ekonomialari liberalek Espainiako Estatuko enplegu narriadura azaltzeko sarri erabiltzen duten argudioa hauxe da: aldi bateko kontratuek hazkunde garaian kontratazioa errazten dute, baina krisialdian kaleratzea ugaldu. Beraz, argudio bera erabilita eskatzen duten kontratu bakarrak, enplegu egonkorraren babes murrizketan oinarritzean, enpleguaren narriadurarako joera are gehiago indartuko luke.

Azken buruan, dualtasunak mahai gainean ipintzen duen arazoa ez da enpleguan duen eragina, sorrarazten dituen desberdintasun sozialak baizik. ■

Asisko Urmeneta ✦

DANI BLANCO

Aingeru Epaltza
IDAZLEA ✦

Larru kontuak

POSTA ZERBITZUA fin ibiltzen ez bada, ARGIAren zenbaki hau irakurle batzuen eskuetara ailegatu orduko bala-bala ibiliko dira, jende artean, maiatzaren 24ko hauteskundeetako emaitzak. Jakinen dugu Nafarroara etorria den azken hilabeteetan hainbertzeren ahotan ibili den aldaketa, eta/edo hura zenbaterainokoa den. Jakinen, bertzela, jadanik asmatzen hasi beharko ote dugun nola iraun bertze lau urte gehiago, basamortuan ibiltari.

Inkestek kolore aunitzeko Parlamentua agindu digute, inoren jabetza partikularra izanen ez dena. Agintea, baten kontua gabe, birena, hirurena eta are laurena izanen da, seguruenik, behialako erresuman. Ez da izter-estuendako gobernua izanen, ohe-zabalendakoa baizik. *Ménage à trois* ez ezik, *à quatre* ere egiten jakin beharko du noski lehendakaritza nahi duenak. Eta kasu, inor ohantzetik eror ez dadin.

Ohe-laguna(k) nor, horretan koska. Alberdanian eta aupalanarru ibiliko dira gure politikariak. Promiskuitateak ere bere mugak ditu, alabaina. Are gehiago Opusek benedikaturiko lur honetan. Bikotekide –hirukotekide, laukotekide– gose daude nafar alderdi eta koalizio politikoak, baina ez edozein preziotan aritzeko bezain desesperatuki. Nafar politika aurreikusgarri samarrean egundaino probatu ez diren ariketa, jarrerak eta praktikak ikusiko baditugu ere, ez da dena on izanen. Bateragarritasun mugatuak gobernatuko du gobernamenduaren ohe biribila.

Promiskuitateak ere bere mugak ditu, areago Opusek benedikaturiko lur honetan. Bikotekide –hirukotekide, laukotekide– gose daude nafar alderdi eta koalizio politikoak, baina ez edozein preziotan aritzeko bezain desesperatuki

Lerro hauek kanpaina bete-betean dagoela idatziak dira. Eta kanpaina kukurrukuka eta nor bere buruari haizeka ibiltzeko aroa dugu, ez zure ondoan nor etzanarazi nahi duzun aldarrikatzeko tenorea. Nork norekin baietz, hori ez du inork garbi-garbi adierazi. Gardenago dago nork norekin ezta itsuturik ere. Edo nork norekin noiz nola.

Inkesten anabasek iradoki dutenetatik eta batzuek eta bertzeek erranetatik, ondorio garbia ateratzeko maneran gaude: inon susmatzen ez den ustekabeko bitxikeria apartarik gertatu ezean, bi baldintza bete beharko dira hurrengo gobernuburua UPNkoa ez izateko. Lehenbizikoa, Euskal Herria Bilduren, Geroa Bairen, Izquierda-Ezkerraren eta Podemos-Ahal Duguren jarlekuen baturak gutxienez ere 26 egitea. Bigarrena, lau indar horietarik jarleku gehien duena EH Bildu ez izatea.

Horren gordina, horren erreala. ■

DANI BLANCO

Itxaro Borda
✦
IDAZLEA

Sei bider

IRAULTZA burges odoltsu batetik eskubidez jabeturiko hiritarrak ginen eta kontsumitzaile biluzi egin gaituzte. Supermerkatuetan ahalaz preziorik apalenean zer edo zer erosteko aukera geratu zaigu, eta politikaren alor ikusgarria –gurea barne– presaka hostokatzen den katalogo bihurtua da: bakoitzak bereak hautatzen ditu bere libidoaren arabera.

Afera gaitzak dagizkigu: haragi puska berriz kondizionatua euro soilean eskuratzen dugu. Egunean hirutan irents dezakegu osasunarentzat ezinbestekoa omen den abere protidoz emokatu zitzi gorria. Krisia aipatzen digutela, ez genuke atzera itzuli nahi: arbasoek baba zabarrak eta asun saltsak baino ez zeuzkaten bizi-iraupenaren ziurtatzeko garaira.

Hargatik sei bider ordaintzen dugu gure janari hain merkea: erostean lehenik, zergetatik laborantzari eman subentzioetan gero, pestizidaz eta nitratoez ura garbitzeko tasak pagatzean, loditze eta diabete eritasunekin medikura joatean, bio-aniztasuna galtzeko tenorean eta azkenik nekazaritza industrialak eragiten duen klima aldaketaren ondorioak pairatzean.

Ustiatzaile neoliberalen konplizeak gara. ■

Gaizka Iroz

Eric Dicharry

✦ Antropologoa

Paradoxa jasanezinak

Mundua urruntasun batez so egin behar da. Urruntasunak mundua den bezala ikusteko laguntzen digulako. Urruntasunak munduaren paradoxak biluzten dituelako. Eta hor begien aitzinean jasanezina den mundua agertzen zaigu. Apez pedofiloak, klientelismoa, korrupzioa, gizartearen erreprodukzioa, determinismoen gaindiezinak, aberastasunaren partekatze eza, langile behartsuak, Guantanamo Kuban kokaturik, Guantanamo bera, giza eskubideen zapalkuntzak, Frantziaren hiltzaileak *Res publica*ren interesen araberakoak, Frantziaren armen salmentak, alde batetik Ameriketako Estatu Batuen (AEB) drogaren kontrako gerla eta beste alde batetik AEBen drogen kontsumoa, Ipar Euskal Herriko euskararen ofizialtasunaren gabezia, Euskal Herriko independentziaren eza, populuen ez-jabetasuna, polizien indarkerien zigorgabetasuna, Euskal Herriko burmuinen ihesa, iruzur fiskalak, paper administratiboen diktadura.

Seaskaren alde, dudan diru xumea oparitzeko Iparraldeko Senpereko Herri Urratsen izan naiz. Baina, aurten burmuinean galdera batekin joan naiz. Euskararen aldeko borroka horretatik nor aterako da irabazle?

Egunero munduan zehar zabaltzen diren berriek paradoxaz paradoxa deitzen den bidaiarantz eramaten gaituzte. Munduko paradoxek sinkretismoaren ahuleziak erakusten dizkigute. Alde batetik diskurtsoak, beste alde batetik ekintzak. Artean zentzuaren galtzea. Joseba Sarrionandiak dioen bezala: "Euskaldunak pertsona errealistak, pragmatikoak eta auzolanekoak garela normalean eta politikaren inguruan ostera, ba, irrealistak, alferlan zaleak eta bata besteaen kontrako borrokari prestuak bihurtzen garela, ez? Hitzak ere beste alorretan, hitz bat erabiltzen duzu eta badakizu zer esan nahi duen, ez? (...) Politikaren alorrean ostera esaten dira hitzak hustuta bezala, ez? Esanahirik gabe".

Maiatzaren 10ean, Seaskaren alde, dudan diru xumea oparitzeko Iparraldeko Senpereko Herri Urratsen izan naiz. Baina, aurten burmuinean galdera batekin joan naiz. Euskararen aldeko borroka horretatik nor aterako da irabazle? Seaskak Ziburuko Herriko Etxearekin ukan zituen tirabiretatik, irabazle figuratzat, Seaskari ikastola berria eraikitzeko salduko dion lurraren jabea ikusten dut. Lur espekulazioari esker 300.000 euro gehiagorekin bere sakelan Ziburuko karriketan ibiliko den jabea. Hor datoz nire galderak: Uste duzue jabeak kontzientzia txarra ukanen duela? Uste duzue berak euskaldunen elkartasunari esker irabaziko duen dirua Herri Urratsera oparitzera joan zenentz? Lurra lortu nahi dugunean nola lortzen da, okupatuz ala ordainduz? Borroka batean beti ertz desberdinak badira. ■

Livan Usallán

Nerea Azkona

✦ Migrantologoa eta garapen-lankidetzan aditua

Migrazio-ibilbideen birzabaltzea: kasualitatea ala kausalitatea?

Europa eta Afrikaren arteko mugan ikusten ari garen gertaerak tamalez duela bederatzi urte gertatzen ziren jadanik. Antza, kondenatuta gaude aldian-aldian irudi berberak ikustera. Eta denak berdin jarraitzen du: muga zeharkatzen saiatzen diren pertsonen heriotzak, poliziaren etorkinen kontrako indarkeria, komunikabideen sentsazionalismoa eta politikari batzuen deklarazio zinikoak. Denak berdin jarraitzen du: Estatuek Tronuen Jokora jokatzen duten bitartean, akordioak eta "bulegoko" itunak eginez, pertsonak hiltzen ari dira.

Kasualitatea ala kausalitatea? Espainiako Estatuko mugan bizi ditugun "Marmoten egun" hilgarri horiek, itunen, akordioen eta hauen ondorioen kausa dira. Gainera, paper horiek bulegoetan egiten dira, baina herritarrek jasaten dituzte. Kasu honetan Afrikakoek.

> *Komunikabideek emandako irudiaren ondorioz, 2006an "kayuko-en krisia" deritzoguna gertatu zen. Horixe, eta aurreko urtean Espainiaren eta Marokoren arteko mugan gertatutako heriotzak izan ziren Lehen Afrika Planaren bultzatzaileak*

Duela urte batzuk, garapen-lankidetza alorraren baitan, Espainiako Estatuaren eta Mendebaldeko Afrikako herri batzuen arteko harreman ofizialak indartu ziren. 2006, 2007 eta 2008 urteetan Lehen Afrika Plana martxan jarri zuten eta planaren hirugarren helburuari esker, sei akordio osatu zituzten, *Migrazio-lankidetzaren akordio esparruak* izenekoak. Politika publiko horiek eta Espainiako Estatuaren eta Mendebaldeko Afrikako herrien arteko akordioak izugarri garrantzitsuak izan dira, garai hori eskualde horietatik zetozen migrazio-lekualdatzearen igoerari egokitzen baitzaio.

Gaur egun jazotzen ari dena aurretik gertatuaren berdina da. 2006an komunikabideek jende-oldeaz hitz egiten jardun zuten, eta orain kontu bera gertatzen ari da. Hori ordea, ez da egia. Komunikabideek emandako irudiaren ondorioz, 2006an "kayuko-en krisia" deritzoguna gertatu zen. Horixe, eta aurreko urtean Espainiaren eta Marokoren arteko mugan gertatutako heriotzak izan ziren Lehen Afrika Planaren bultzatzaileak.

Hala ere, Kanarietara ontziak iristea eta beraien eboluzioa, 1994an hasitakoa eta 2006ko udan finkatutakoa, pobreziaren ondorioa izateaz gain, beste zergati batzuen fruitu ere bada. 2005ean Espainiako Gobernuak Marokoko Gobernuarekin akordio bat egin zuen aberriratzearekin eta mugen kontrolarekin erlazionatuta. Horrek bi eragin izan zituen: alde batetik, Andaluziako kostaldera heldutako pateren kopurua gutxitu zen; eta bestetik, Kanarietara kayuko gehiago iritsi ziren.

Arrazoi hauengatik irteeren jatorria Marokotik Mauritaniara aldatu zen. Horrela, azken herrialde horrekin ere, Espainiako Estatuak beste akordio bat berraktibatu zuen 2005ean. Akordio horretan Mauritaniarako aberriratzeak jorratu ziren. Bi akordio horiek eragin zuten Europarako ibilbideak hegoalderantz zabaltzea eta Senegal eta Cabo Verde migraziorik garrantzitsuenen irteera herri bihurtzea. Hori horrela, Espainiako Estatuak herri horiekin hainbat akordio negoziatu zituen: bata, migrazio-lankidetzari buruzkoa; eta bestea, mugako kontrolei buruzkoa.

Migrazio-lekualdatzeen gehitzeak eta garapen-lankidetzaren funtsen areagotzearen arteko bat etortzeak irakatsi digu mugan gertatutakoak ez direla ausazkoak. Estrategiak, baldintzatzaileak eta erabaki politikoak pertsonen etorkizunarekin erlazionatuta daude. Hau da, garrantzizkoa estrategia da –ez giza eskubideak–, zeinak gertaeren ibilbidea markatzen duen.

Mendebaldeko ibilbidea, Afrikako kayukoena Kanarietarantz, ia-ia itxita dago gaur egun: alde batetik, migrazio-lekualdatzeek beste ibilbide batzuk aukeratzea "eragin" dute, eta ibilbide horiek ahulak dira. Horiek 2006an baino lehen erabiltzen ziren eta orain gauza bera gertatzen ari da. Adibidez, penintsularen beste portu batzuk edo Ceuta eta Melillako hesiak; bestetik, datuen atzean ezkutatu dira bidaian hiltzen diren pertsonak, ibilbidea gero eta zailagoa da eta. Beraz, Mendebaldeko ibilbidea itxi egin da eta Estatuak puntu bat irabazi du. Hori ez da mugaren kontrol sistema efektiboa!

Eta historia errepikatu egiten da eta badirudi hala jarraituko duela, zeren gaia azaletik tratatzen baita, eta ardurak beste estatuen esku uzten baitira. Hortaz, beharrezkoa da giza-eskubideen errespetuan oinarritutako neurriak hartzea eta ez estatuen beharrizanen araberakoak. Eta Europa, non dago? ■

2. argitaraldia eskuetan

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua ARGIAren eskutik

Liburuaren aurrerapena ikusgai
www.argia.eus/baratzea-lagina
helbidean

184 orrialde (21,5x25 cm)

23 €

19,50 € harpideentzat

Eskaerak:
943 371 545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

Informazio gehiago:
www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea

AURKEZPEN-HITZALDIAK HERRIZ HERRI
Antolatu zure herrian
Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:
sustapena@argia.eus · 943 371 545

argia

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

ARGITALETXEAK

Behinola elkargune, orain zer?

Euskal literatur sistemaren osasuna epaitzeko ekoizpenari erreparatu ohi zaio: liburu kopurua, aniztasuna, kalitatea, salmentak... Beste bide bat hautatu dugu guk diagnostikoa egiteko. Uztan baino, landareetan jarri dugu arreta: zein bilakaera izan dute behinola idazle taldeek martxan jarritako argitaletxeek? Zergatik sortu dira berriagoak? Bada gehiagoren beharrik? Lagin murritz baina adierazkorra hautatu dugu erantzunak aurkitzeko.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

"IRUDITZEN ZITZAIGUN lan interesgarri asko kanpoan geratzen zirela argitaletxe gehienek merkatu ikuspegiarekin funtzionatzen dutelako. Alor ekonomikoa ekuaziotik ezabatzeak lan horiek argitaratzeko aukera eman digu". Hala laburbiltzen du Iratxe Retolaza literatur kritikariak Edo! argitaletxearen sorreraren zergatia. Mahai beraren bueltan ditu, duela hiru urte sortutako argitaletxea euren borondatezko lanarekin elikatzen duten beste bi kide ere: Ibon Egaña kritikaria eta Oier Guillan idazlea. Bat datoz euskal argitalpenetan oso toki gutxi duten generoak zerrendatzerakoan: pentsamendua, saiakera, artea, antzerkia eta itzulpena. Hain justu ere, Edo!-k orain arte kaleratu dituenak alor horietako lanak dira.

Guillanek ez du atsegin, ordea, hutsunea betetzen dutela esatea. Ezinezkoa dela dio, hamar liburu soilik argitaratu dituztelako. "Esperimentu honek balio izan du hutsune horiek ikusarazteko eta frogatzeko beste kultur eredu batzuk ere badaudela: gauzak beste modu batera eginez gero, egon daitekeela hori baloratu eta irakurriko duen publiko bat". Harpidedunen ekarpenak eta borondatezko lanak sostengatzen dute Edo!, eta argitara eman dituzten liburu gehienak agortu zaizkie dagoeneko. Azken urteotan sortu den argitaletxe txikietako bat da, Denon artean, Gaumin eta Pasazaite-rekin batera.

Idazle-taldeek sortu zituzten gaur egungo argitaletxe asko, lotura estetiko eta ideologiko nabarmenekin. Urteekin elkargune izaera hori galdu egin dute ordea

Edizioa editorearen gainetik

Edo! modu asanblearioan kudeatzen dute, eta editore lana ere ez dute pertsona bakarraren esku uzten. Bi edo hiru laguneko taldeek hartzen dute edizioaren ardura, ondoren zuzentzaile batek azken errepasoa eman aurretik. Liburu bakoitzak eskatzen duenaren araberako taldea hautatzen dute gainera. Bere alde on eta txarrekin, eragin positiboa duela dio Ibon Egañak: "Prozesua beste bide batzuen aldean mantsoagoa gertatzen da, baina lana mimoz egitea lehenetsi dugu. Ohituta ez dagoen sortzailearentzat luzeegia izan daitekeen arren, emaitzan aldea igartzen da."

Edizioan jartzen dute arreta, ez editorearen figuran, Egañaren arabera: "Badira dena erabakitzeko boterea duten izen handiko editoreak, beste literatur sistemetan batez ere. Guk prozesuari ematen diogu garrantzia".

Euskal editoreei begira jarrita, profil aniztasun falta aipatzen da maiz. Iratxe Retolazak ere bere egiten du analisi hori: "Bakoitza bere joerekin baina antzeko profila dute askok, eta sortzailearekin duten harremanetan, jokabideak ere antzekoak dira. Gizonezkoak dira, gipuzkoarrak gehienak, klase sozial bertsukoak, belaunaldi berekoak, eta literatura ulertzeko modu jakin bati erantzuten diotenak". Arrazoi historiko bati egozten dio antzekotasun hori: "Euskal argitaletxe gehienak garai berean sortu ziren, eta orduan lan horretan aritu zirenak dira orain editore. Haien ahaleginari esker egin dute aurrera".

Aldizkarien eboluziotik industriara

Arrazoi historiko horiek ongi baino hobeto ezagutzen ditu Josu Landa idazleak, Susa

EDO!

Edo! argitaletxea modu asanblearioan kudeatzen dute. 2012an martxan jarri zen egitasmoa da azken urteotan sortu den editorial berrietako bat, Denon artean, Gaumin eta Pasazaiterekin batera.

argitaletxean baitabil sorreratik bertatik. 1983an abiatu zen, Maiatz eta Pamielaren garai berean eta ibilbide bertsua egin ondoren. Aldizkarien anparoan eta eboluzio natural gisa sortu zirela dio Landak. "Jada enpresa ikuspegia bazuten Elkarrek eta Ereinek izan ezik, garai hartan sortutako argitaletxeek aldizkari gisa ibilbidea egina zuten aurretik". Horri esker, testuak maketatu eta papereratzeko gaitasuna zuten idazle talde mordoa ziren urte haietan. "Azken finean lehengai bertsua da aldizkari bat edo liburu bat egiteko behar dena. Testua, maketazioa, inprenta, papera…".

Susaren kasuan, Luis Haranburu Altunak Xabier Montoiaren *Anfetamiña* poema liburuari emandako ezezkoak piztu zuen zigilu propioa sortzeko grina. "Zertan ibili behar dugu ate joka gure motibazio edo nahien antipodetan dauden argitaletxeetan? Bultzada edo gogo hori zegoen orduan. Ikuspegi ideologiko batetik ere garrantzitsua zen guretzat produkzio bideen jabe izatea". Gaur egunera etorrita, aldizkarien dinamiken faltak argitaletxe berrien sorrerarekin zerikusia baduela uste du Landak.

80ko hamarkadan sortutako argitaletxeek profesionalizaziorako bidea egin zuten apur-

SUSA

Susa argitaletxeko Josu Landa, Iñigo Aranbarri eta Gorka Arrese (bizkarrez) artxiboko argazki batean. Aldizkaritik editorialera eboluzio "naturala" egin zuten 80ko hamarkadan, Pamielak eta Maiatzek bezala.

ka, Susan soldatapeko bakarra Gorka Arrese editorea bada ere. "Euskarazko produkzioak ofizialtasuna lortzeak eta horren inguruan eman zen instituzionalizatzeak, lanpostu mordoa sortu zituen. Horrek frankismo osteko aparraldia baretzearekin batera, pultsio eraldatzaile horren apaltzea eta ia-ia desagertzea ekarri zuen".

Landaren arabera, liburu industriaren aldeko aldarria ere egin da urte askoan. "Ematen zuen zenbat eta lanpostu eta egitura gehiago izan, orduan eta indartsuagoa izango zela euskal kultura". Dioenez, azken urteotan apaldu egin da diskurtso hori, baina garai hartan esan eta idatzitakoak ondo gogoratzen ditu: "Bazirudien argitaletxe txikiak soberan zirela; hobe zutela desagertzea".

Argitaletxeak jada ez dira elkargune

Josu Landak berak aitortzen du lehenengo urteetan Susa argitaletxearen argitalpenak idazle talde jakin baten lanak zirela. Gaur egun ordea, lehen "pentsaezina" zen idazleek ere Susan argitaratzen dituzte euren lanak. Iratxe Retolazak orokortzat jotzen du transformazio hori. "Duela hogei edo hogeita hamar urte idazleak eurak ziren argitaletxeak sortu zituztenak, eta lotura estetikoa zein ideologikoa nahiko markatua zen. Orain idazleek erabiltzen dituzten plataformak dira, atxikimendua izan edo ez".

Ildo beretik, argitaletxeak enpresa bilakatu diren heinean, elkargune izateari utzi diotela dio Guillanek. "Idazleek badituzte foroak, baina ez dira enpresa egitura duten argitaletxeak. Nahiko bilakaera naturala eta logikoa iruditzen zait". Bat dator 2012an *Damutzen ez direnak* lehen eleberria kaleratu zuen Itxaso Araque idazlea ere. Argitaletxe kontzeptua errotik aldatzen ari dela dio: "Behar-beharrezkoak dira argitaletxe berriak, literatura kudeatzeko modu ezberdinak praktikan jartzeko eta eztabaida publikoa aberasteko. Baina, sortzaile talde batek ezinbestekoa al du argitaletxe bat ideiak gorpuztu eta lanak argitaratzeko? Edo nahikoa du kafetegi edo liburu-denda batean euren lanak plazaratzea?".

> **"Garai batean ematen zuen zenbat eta lanpostu eta egitura gehiago izan, orduan eta indartsuagoa izango zela euskal kultura"**
>
> Josu Landa

Idazle gazteek ez dute argitaletxerik behar?

Itxaso Araquek 24 urte zituela plazaratu zuen bere lehen eleberria. Salbuespena da berea neurri batean: bi eskurekin –eta akaso bakarrarekin ere bai– zenba daitezke dagoeneko liburua argitaratu duten 30 urtetik beherako idazleak. Gehientsuenek Elkar argitaletxeak sustatutako Igartza eta Augustin Zubikarai bekei esker papereratu dute euren lehen lana. Araqueri halako deialdiak pozgarri egiten zaizkio: "Augustin Zubikarai beka irabazi ez banu, segur aski ez nuen eleberririk plazaratu ahal izango". Izan ere, ez zaio sekula argitaletxe batengana hurbiltzea bururatu, leku hermetikoak iruditu baitzaizkio beti. Barne dinamikak ezagutzean ulertu du ez dela hala, baina euren profil publikoa hobetzeko ahalegina egin behar luketela uste du.

Ba al dute aipatu bekek loturarik egungo gazteek argitaletxe propioak ez sortzearekin? Baietz uste du Josu Landak: "Idazle gazteek ez dute liburuak argitaratzeko plataforma propioak sortzeko beharrizana sentitzen. Itzali egin da inpultso hori. Alde batetik, pozgarria da. Esan nahi du orain dela hogeita hamar urte baino dezente hobeto gaudela, eta aukera gehiago dagoela argitaratu ahal izateko". Araquek ordea ez du uste indar hori galdu egin denik, transformatu eta dibertsifikatu egin dela baizik. "Idazlegai gazteek aukera ugari dituzte euren lana online argitaratu eta promozionatzeko eta agian horregatik ez dute argitaletxe bat sortzeko beharrik ikusten". Retolazak ere ez du uste gazteek argitaletxeak behar dituztenik: "Belaunaldi berrietan beharbada ahotsa hartzeko bidea jada ez da argitaletxea, ez dio erantzuten gaur egungo kultur ereduari. Iruditzen zait gazte asko dagoela kulturgintzan bere tokia egin duena libururik argitaratu gabe". ■

Harpidetza bakoitzarekin,
are independenteago

ARGIAK eta EUSKAL HERRIAK

mugarik ez

Mugak sortzen dituen gastuak gure gain hartu ditugu

ARGIAn lurraldetasuna eta berdintasuna ditugu oinarri. Mugarik gabeko Euskal Herria dugu ipar eta horregatik, harpidetzen tarifak bateratzea erabaki dugu.

ARGIAren balioak praktikara ekarri eta estatuen korreo sistemek sortutako kostuen diferentziak gure gain hartu ditugu. Euskal Herriko herritar denek baldintza berak izan ditzagun.

Gure konpromisoaren koloreekin, Euskal Herria margotzen jarraitzea baitugu erronka.

ARGIA astean behin jasotzeko aukera:
hilean 12 euro baino ez*

ARGIA hilean birritan jasotzeko aukera:
hilean 7 euro baino gutxiago **

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:
hilean 4 euro baino gutxiago ***

*ARGIA astero: 145 euro urtean.
Ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera.
46 zenbaki + 11 Larrun eta Urtekaria.

** ARGIA hilean birritan: 77 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 22 zenbaki + 11 Larrun.

*** ARGIA hilean behin: 41 euro urtean.
Ordainketa urtean behin. 11 zenbaki + 11 Larrun.

ESKAERAK

✆ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

argia

HIP HOPA EUSKARAZ

Nola iritsi heldutasunera *flow*a galdu gabe

Euskal hip hoparen urtea izango ote da 2015a azkenik? Eskaintza falta delako behintzat ez da izango, "euskaraz ez dago rap diskorik" esatea aspalditik debekatuta dago. Aurten publikatu diren bi diskok eta argitaratzear den beste batek merezi dute entzunaldia.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

Norte Apache (ezkerrean) eta Kodigo Norte, euskal hip hoparen iparra seinalatzen ari diren bi talde. 2015ean disko bana ekarri dute.

HORTIK AURRERA, zaila da iragarpenekin asmatzea eta, errealistak izanda, kosta egiten da sinestea rockera hain lerratua dagoen entzuleria euskaldunak kopuru handi samarretan aukerarik emango dionik errimaz eta samplez osatutako koktel bati.

Nolanahi: urtarrilean eskuratu ahal izan genituen Kodigo Norteren *Eutsi* eta Suaia eta Lahaineren *Herrima*. Izaera arrunt desberdinekoak biak: lehenbizikoak nagusiki reggae sustraiekin uztartzen du hip hopa, diskurtso optimista, tarteka umoretsu eta tarteka introspektiboarekin, Gasteizko *establishment*ari egurra emateaz ahaztu gabe, noski. Bestelakoa da *Herrima*, oinarrietan elektronikoagoa eta hizpideetan militantea argi eta garbi –diskoa baino lehen ere ezagutzen genuen *Grebalariak aske!* da horren erakusle argiena–.

Ez gara hasiberriei buruz ari: Kodigo Nortek hamar urte daramatza martxan; eta talde horretako kide den Gorka Suaiak eszenatokian ederki zailduta dagoen 121 Krew talde barakaldarreko Endika Lahaine du lagun *Herrima*n. Belaunaldi berekotzat jo ditzakegu: Selektah Kolektiboak inguruotan zabaldu zuen zirrikituari jarraitu zioten musikariak dira.

Hazi berriak

Eta bai, egia da, euskaraz ari diren hip hop taldeek ez dute lortu oraindik bazterreko izateari uztea, baina izaera propio bat sortu dutela esan daiteke behintzat. Hori gabe ezin baita ulertu beste talde bateko kideek, Norte Apache bizkaitarrek, maiatzean aurreratu duten *Hazi berriak* kanta. Hurrengo diskoaren aurrerapen gisa aurkeztu dute, baina gehiago ere bada: azken hamarkada luzean egindako hip hop euskaldunaren aldarrikapena dirudi, urteotan egindako kanten erreferentzietatik abesti amaierako keinu umoretsura. Nork kolaboratu duen begiratu eta ustea baieztatzen da: MAKeko Jon Eyherabide eta Selektah-ko Manugaitz aspaldiko partez entzuteko aukera eskaintzen du abestiak.

Auto-erreferentziarako joera hori ez da berria, baina kasu honetan halako heldutasun bat iradokitzen du. Euskarazko rapak jada ez du esan beharrik noizbait posible izango dela. Badago, hortxe, esku-eskura. Artikulu honetan aipatutako taldeen diskoak doan deskarga daitezke. Jende gehixeagok horixe egitea eta aukera bat ematea baino ez da falta. ■

TRIXERTAK	Sortzailea	
	berria	oninart

berrian argitaratutako albisteetatik abiatuta Euskal Herriko zenbait sortzailek diseinatutako elastikoak.

25€
Bidalketa, BEZ barne
BERRIALAGUNEK
22,5€

berriak jantzi egiten gaitu.
Aukeratu udarako elastikoa!

Eskariak:
berrialagunek: berria.eus/trixertak
Gainerakoek: euskalherrikoplaza.com
943-30 43 45

Sortzaileak:
Zaldieroa - Zugazart
Savanna Studioa - Buatxabal

Kolore aukera eta eredu guztiak webgunean.
Neurriak:

ZABALA	ESTUA
%100 kotoia	%100 Kotoia
165 g/m2	165 g/m2
S-M-L-XL-XXL	S-M-L-XL

LITERATURIA

Aurten galdu ezin dituzun bost zita

Maiatzaren azken asteburuan ospatuko da aurten euskal letren plaza Zarautzen, bigarrenez iaz Larrabetzutik hona salto egin ostean. Lehen aldiz gai baten bueltan osatu dute egitaraua: Ardoa. Huts eginez gero, literaturzale, galdu izanaz damutuko zaren bost proposamen bildu ditugu jarraian, aipatu gabe utzitakoek ere hainbeste merezi arren.

ITZIAR UGARTE IRIZAR

LIBURUAK zuzenean zundetatik zainetara, odolera. Hori irudikatu dute Literaturiaren antolatzaileek, Ander Lipus antzerkigilea buru duen kartelean eta Lipus bera protagonista den sustatze-bideoan. Maiatzaren 28tik 31ra bitartean, "Odolean daramagu" lelopean ospatuko baita zazpigarren edizioa. Hemen egitarau oparotik egindako aukeraketa:

Zentzumenen zoramena

Ostegun iluntzean –20:00etan– Talaiberri txakolindegian ekingo diote lau egunetako literatura-edanari. Ongi hasteko, Katixa Agirre, Oier Santos, Gaizka Zabarte eta Tere Irastorzaren azken lanak lurrin usainez eta txakolin zaporez dastatuko dituzte.

Porto emanaldia

In vino, veritas edo ardotan datza egia. Hiri portugaldarreko ardoa gogoan eta umorearen bueltan sortu dute emanaldia Harkaitz Canok eta Mursegok, Literaturiarako propio osatu ere. "Bertso berriak, uzta oneko ardoari jarriak", ostiralean 20:00etan.

Erractus ikuskizuna

Urteko ikuskizun literario aipatuenetakoa da ziur asko. Danele Sarriugarte, Jule Goikoetxea eta Kattalin Minerrenek eskainiko dute errezitaldia Sarriugarteren *Erraiak* eleberriaren eta Goikoetxearen *Tractatus* poesia-liburuaren fusioan oinarrituta. Orain arte ikusteko aukerarik izan ez baduzu, ez zenuke galdu behar larunbatean 12:00etan.

Ardoa eta Odola ikuskizuna

Napoka Iria taldeak Joseba B. Lenoir Berako musikariarekin sortutako ikuskizuna da *Ardoa eta Odola (Wino I Crew)*. 1995eko *Dead man* western-filmarekin eta Hala Bedi irratiko

Ardo artean aurkeztu zuten aurtengo Literaturia. Maiatzaren amaierarako egitarau oparoa prestatu dute Zarautzen.

Celosamente Gordea saioekin osatu dute, propio hauek ere Zarautzerako. Larunbatean, arratsaldeko 17:00etan iritsiko zaie txanda.

Hiruko solasaldia

Arantxa Urretabizkaia, Karmele Jaio eta Arantxa Iturbe idazleen arteko berbaldia izango da azken egunean aintzat hartzeko proposamenetako bat. Literaturatik abiatuta, honek oinarrian dituen hainbat gai hartuko dituzte hizpide, eta nola ez, ardorik ez da faltako. Aurretik aipatutako saio guztien gisan, lehengoaren kasuan salbu, Modelo aretoan izango da 12:30ean.

Bestetik, saio-bitarteetarako, larunbatean egun osoan eta igande goizean, liburu-azoka izango da eta Garoa liburu dendan liburu aurkezpenak egingo dituzte; hona, besteak beste, Aritz Gorrotxategi, Gerardo Markuleta eta Mikel Ayllon hurbilduko dira. Larunbat gauerako apuntatzekoa Putzuzulo gaztetxean egingo duten bertso-kata literarioa, Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Unai Iturriaga eta Iñigo Manzisidor 'Mantxi' bertsolarien eskutik.

Ezinbestez, letra bete odol dutenak asetzeko asteburua. ■

XVI. HIK HASI
Udako Topaketak

Donostia. Uztailak 1, 2 eta 3
Leioa. Uztailak 6, 7 eta 8

Matrikulatzeko azken eguna: maiatzaren 31

hh

47 ikastaro euskaraz

Pikler-Loczy: haurra ukitzen dugunean ◆ NIK irakastetik BERAK ikastera ◆ Pedagogia Sistemikoa ikasgelan ◆ Gizarte Zientziak - Iantegia ◆ Dolu, galera, aldaketa, gabeziak... ◆ Eskola libre eta demokratikoak ◆ Dalcroze erritmika ◆ Nerabeak eta hezkidetza ◆ Musicosophia ◆ Haurrentzako masajea ◆ Pentsamendu autonomoa eta sortzailea ◆ Nola saihestu gatazkak ◆ Neure burua maitatzen ◆ KAMISHIBAI tailerra ◆ Entrenamendu Mentala ◆ Bideoa ◆ Gorputz hizkuntza: oinarrizko solasaldiak ◆ Plastika: kutxa baten balioa ◆ Espresio tailerra ◆ Eskola emozionala ◆ Ortografiaren gakoak ◆ Tertulia diagogikoak ◆ Alfabetomotrizitatea ◆ Yoga eta Kontzentrazio Teknikak eskolan ◆ Musika Haur Hezkuntzan ◆ Zinea elkarbizitzan hezteko erraminta ◆ psikomotrizitatea praktika ◆ Koplagintza Haur Hezkuntzan ◆ Heziketa dibertigarria zahartzaroan ◆ Euskal mitologia eskolan ◆ Mindfulness eta hezkuntza ◆ Ilusioa mantenduz, motibatu! ◆ Literatura eta ipuinak ◆ Euskaraz aritzeko jolasak ◆ Hezkuntza proiektuak sortzen ◆

Informazioa: www.hikhasi.eus **943 371 408**

Haur eta gazte literatura

Akim ihesi
Claude K. Dubois
Itzulpena: Aztiri
Ttarttalo, 2014



Gerraren gordintasunean

BITXIA DA Ttarttalo etxeak aurkezten digun Claude K. Duboisen liburu hau. Bitxia, arraroa delako; eta bitxia baita, bitxi bat bezala har dezakegulako gure artean.

Liburuaren izenburuak eta azaleko irudiak honen nondik norakoari buruzko hainbat pista ematen dizkigute; gerra batetik ihesi doan mutiko baten istorioa, alegia. Baina kontakizun horren egileak batik bat irudiak erabili ditu, eta hauen bidez kontatu digu Akimen istorioa. Liburua osatzen duten ia 90 orrietatik 11 orritan ageri da testua, luzeagoa eta laburragoa, baina hurrengo orrietan irudien bidez narratuko zaiguna kontatzeko.

"Badirudi Akimen herrixka gerratik urrun dagoela. Akim eta beste haur batzuk beren itsasontzi txikiekin jolasean dabiltza (…) Ilunabarrean, burrunba ilun bat eta tiroak entzun dira zeruan. Gero eta handiagoak dira burundarak" eta herrixkako lasaitasuna eta zeruko gerra hegazkinen bonben ondorioak ikus ditzakegu hurrengo orrietan. Ondoren, "Akimen herrixkan, bizilagun guztiak korrika hasi dira, batera eta bestera (…) bere etxea txikitua dago, eta ez dago inor han. (…) Akim bakarrik gelditu da jende oldearen erdian".

Eta ia kolorerik ez duten irudi zuri-beltzen bidez Akimen ihesaldia eta familiaren bila eginiko bidaia kontatuko zaigu hurrengo orrietan. Heriotza, indarkeria, laguntasuna, babesa… gertakari eta sentimendu ugariren lekuko izango da irakurlea Akimen istorioan zehar. Kanpaleku batera ere iritsiko da eta han "seguru sentitzen da (…) baina bere etxekoengan pentsatzen du etengabe, eta ikusi dituen gauza guztietan. Ezin du jolas egin beste umeekin". Narrazio ia telegrafiko horrek irudien bidez garatzen diren ideiak azaltzen dizkigu, eta horixe da agian liburu honen bertutea, baina aldi berean akatsa, izan ere, irudiek indarra galtzen dute aurretiko narrazio horregatik… ez baldin bada narrazioa helduak irakurketa bideratzeko eta, ondoren haurrari irakurketa autonomoa irudien bidez uzteko aukera egiten dela.

Bai kasu batean bai bestean liburuak indar handia du, kontakizuna gordina da nahiz eta amaiera ia zoriontsua izan (bada Akimi laguntzen dion sendagile bat eta amaieran: "Askotan, Akimek ezin izaten dio negarrari eutsi, faltan botatzen ditu etxekoak eta lehengo bizitza. Egun batean, kanpalekuko arduradunak dei egin dio. Bere ama aurkitu dute…"). Irakurleak badaki Akimen istorioa ez dela fikzioa, Akim ez dela lehengoa izango, ezinezkoa dela lehengo bizitzara bueltatzea, eta gainera, tamalez, Akimen antzeko istorioak gaur gugandik ez oso urrun gertatzen ari direla. ■

Xabier Etxaniz Erle

Barneko ahotsaren bila
Fly Shit
DDT-In My Heart Empire, 2014

Sustraiekin zintzo eta berrasmatzeko ausart

BURRUNDAYE

ASPALDITIK iruditu zait txalogarria Bergarako Fly Shit taldearen lana. Gogoan daukat ume moko batzuk zirela RKL, Minor Threat, Bad Brains, Bap!, Subterranean Kids eta oro har 80ko hamarkadatik aurrera hardcorearen eszenak emandako taldeen ondareari eusteko ahalegina egin zutela. Sasoi hartan musika estilo eta bizitza jarrera hori gustuko genuen belaunaldi batzuetan, baina gure bailaran, Debagoienan, apenas zegoen ildo hori jorratzen zuen talderik. Eta hor zegoen Fly Shit argi hori itzal ez zedin lanean. Bertsioak egitetik kantu propioak idazteari ekin zioten –beti euskaraz– eta taldearen izen bereko lana kaleratu zuten 2000n: hardcore klasikoa demagun, baina estudiora lehenengo aldiz sartzearen zamarekin.

Taldeak kontzertuak egiten eta hazten jarraitu zuen, egin nahi zutena fintzen: hala, 2005ean kaleratutako *Bizitza… baina nola bizi?* autoekoiztutako diskoak erakutsi zuen hardcorearen irmotasunari eta jarrerari eutsiz, Fugazik aspaldi irekitako post-hardcorearen printzak ere dotoreziaz barneratuak zituztela. Ordurako taldea ez zen soilik Debagoieneko hardcorearen lekukoa, hori baino askoz gehiago zen.

Beraien habitatean –gaztetxeetan– egindako emanaldietan ikusleak zur eta lur uzten zituzten eta ez ginen harritu Harrobia Lantzen eta Entzun-ek *Arnas bakoitzeko ernetzen* diskoa Euskal Herriko 2010eko onenen artean aukeratu zutenean. Eskola zaharreko hardcorearen izaera eta indarra gordetzeaz gain, bestelako estiloetara ere irekitzen ziren ziurtasun handiz.

2012an taldearen ibilbidea azaltzen zuen *1996tik bidetxurrian* dokumentala autoekoiztu zuten; eta aurten, familia lanen aurrean nolabaiteko oreka lortuz, *Barneko ahotsaren bila* lan luzea kaleratu dute –CDa barneratuta duen biniloan–, DDT Banaketak eta In My Heart Empire ekimenarekin elkarkidetzan.

Esango nuke honakoan taldeak iraganean post-hardcorerantz egin zuen hurbilketatik apur bat urrundu eta joera hori arindu duela; eta horrekin batera eskola zaharreko, hastapenetako, hardcorera egin dutela berriro. Baina, hori eginda ere, argi dago taldea asko hazi dela instrumentalki eta borobilduta dutela emaitza.

Azken lanetan bezalaxe, gizakiaren autonomia eta askatasuna dira hitzetan erreferente. Diskoari izena ematen dion *Barneko ahotsaren bila* kantuan, barrura begiratzeaz gain, gitarra riff oso bereizgarria duen hardcorea lantzen dute, post-hardcorearen tonua ere baduena. *Isilkeria* azkarragoa da, *zapatilla*koa deritzona. *Iratzarri* eta *Utopia laztantzen* kantuetan hardcorea eta melodia maisuki uztartzen dira. *Irrati libreak* piezak melodia eta erritmo aberatsak ditu, ilunagoak eta irekiagoak. *Deabruekin dantzan* oso jostaria da, erritmo aldaketa askotarikoa. *Piramidean* azkarra da, arnasa mozten duena eta post-hardcoretik ere badu, baina berrasmatuz. Nire gustukoena da. Azkenik, *Desikasi*k bere baitan batzen ditu melodia bereizgarriak eta rocka. Hit bat. ■

Iker Barandiaran

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:
1. Enara. Adina, bezainbat. 2. Jolasak. Oka. 3. Dimako auzoa, Bizkaian. Eltxoa. 4. Ez positibo ez negatibo. Hamabi zenbaki erromatarrez. 5. Zakur. Olibaren zukua (pluralean). Edo. 6. Aukera paregabe. **Argazkian**. 7. Oilagorraren antzeko hegazti. Lanabes. 8. Betea. Erantzuna.

Goitik behera:
1. Gizarteko ondasunen multzoa. 2. Euroa baino lehen, Frantziako moneta zena. 3. Erregela, norma. Haur, sein. 4. Jainko grekoa. Lekua. 5. Nekazaritza. 6. Pilota. Germanioaren sinboloa. 7. Eguzki. Atseden garai, lanuzte. 8. Okerra, desegokia. 9. Kaltegarri. 10. Egiteko, zailtasun. Bi ken bat. 11. Nago. 12. Luze, goi. 13. Apur bat bustia. 14. Seinale, marka. 15. Egurra.

Sudokuak

Erraza

	1				8	7		
		6		4	7	3	5	
5		7		1	2			
1				2			6	8
9		8				4		2
6	4			8				5
			2	6		5		4
	6	5	7	9		2		
		4	8				9	

Zaila

8	4		7					5
		9		1		6		
	3	7	9			4		
	9							3
				7				
5							6	
		5			2	8	4	
		4		6		9		
3					7		2	6

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen atal bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

Baserriko animalia	A B E R E
Ugaztun bizkorra	
Zirimiria	
Neu, nihaur	
Bakoitzari ehun	
Ugaztun sarraskijale	
Baso	
Musika tresna	
Landa, at	
Aldaki	
Irrika, grina	
Garai egoki	
Hizketa, berriketa	S O L A S

Soluzioak

Ezker-eskuin: 1. Ekai, Beste. 2. Kiroldk, Ok. 3. Oha, Ulitxa. 4. Neutro, XII. 5. Or, Oloak, Nahiz. 6. Mauka, Probalekin. 7. Mlingor, Aitzur. 8. Asea, Erantzuera.

Goitik behera: 1. Ekonomia. 2. Liberra. 3. Arau, Ume. 4. Io, Tokia. 5. Lurban. 6. Baloi, Ge. 7. Eki, Opor. 8. Txarra. 9. Toxiko. 10. Ekai, Bat. 11. Naiz. 12. Alu. 13. Heze. 14. Ikur. 15. Zura.

Zaila

8	4	1	7	2	6	3	9	5
2	5	9	3	1	4	6	7	8
6	3	7	9	8	5	4	1	2
4	9	6	2	5	1	7	8	3
1	8	3	6	7	9	2	5	4
5	7	2	8	4	3	1	6	9
9	6	5	1	3	2	8	4	7
7	2	4	5	6	8	9	3	1
3	1	8	4	9	7	5	2	6

ANAGRAMAK:
ABERE
ERBIA
EURIA
NERAU
EHUNA
HIENA
OIHAN
PIANO
KANPO
KOPIA
PASIO
SASOI
SOLAS

Erraza

4	1	8	5	3	9	7	2	6
2	8	6	9	4	7	3	5	1
5	3	7	6	1	2	8	4	9
1	7	3	4	2	5	9	6	8
9	5	8	1	7	6	4	3	2
6	4	2	8	9	3	1	7	5
7	9	1	2	6	3	5	8	4
8	6	5	7	9	4	2	1	3
3	2	4	8	5	1	6	9	7

ESAERA ZAHARRA:
"Agintza libre da ta ez ematea ere bai"

Zein da zein aurtengo Usopopen?

Usopop festibala
Non: Sara (Lizarrieta). **Noiz:** maiatzak 30.
Sarrera: 10 euro.
Informazio gehiago: usopop.com

King Creosote (goian) eta Wall of Death (behean).

MAIATZAREN 30EAN da hitzordua, Sarako Lizarrietan. Lapurdiko inguru horretan antolatu ohi den musika jaialdia erreferentziazko zita bihurtzen ari da Euskal Herriko *indie* panoraman. "Musika berriak eta Amalurra" goiburuarekin, nazioarteko musikariak eta euskaldunak uztartu izan dituzte aurreko edizioen karteletan; eta musikaz gain, bertako produktuetan oinarritutako eskaintzak egiten du berezi.

King Creosote bakarlari eskoziarra da aurtengo kartelburua. Kenny Anderson dago izen artistiko horren atzean, 1990eko hamarkadan hainbat taldetan jardun ondoren Fence diskoetxea sortu eta bakarka hasi zen musikaria. Ibilbide oso produktiboa izan du geroztik, bere kasuan ez da arraroa urte berean bi edo hiru disko publikatzea.

Dena den, ez da egungo munduak maiz exigitzen duen produkzio-erritmo frenetikoan murgildu den norbait, antolatzaileen esanetan. Glasgowtik urrun, itsasaldeko herri txiki batean bizi baita eta "hamar bat urtez bertako talde ttipien garapena zaindu du eta kultura alternatiboa baserri mundura etorrarazi du".

Belako eta Wall of Death

Azkeneko bosturtekoan jaio diren bi taldek ere emango dute zeresana aurtengo Sarako zitan: Wall of Death paristarrek eta Belako mungiarrek. Rock post-psikodelikoa egiten dute aurrenekoek, 2010ean hasi ziren jotzen eta bi urte geroago argitaratutako *Main obsession* diskoa da beraien erreferentzia nagusia.

Belakoren kasuan, 2011tik gelditu gabe ari dira. Post-punk klabean osatutako *Eurie* disko luzearekin (2013) eta iaz argitaratutako *AAAA!!!!* eta *Bele beltzak baino ez* EPekin jaialdi garrantzitsu askotarako sarbidea lortu dute, baita publikoa harritu ere, zuzenean erakusten duten indar eta freskotasunarekin.

Thousand eta Petti, zein baino zein

Lizarrietako mendatearen beste aldetik etorriko da Petti, Beratik. Noise Hole eta Zup taldeetan aritu ondoren, 1997tik bakarka kantatzeari ekin zion, folk amerikarra eta blues sustraiak uztartuz. Ekainean aurkeztuko omen duen disko berriaren laginen bat eskainiko ote du Usopopen?

Thousand da maiatzeko jaialdiko protagonistetan konfirmatu den azkena. Stéphane Milochevitch gaztearen proiektua da: zenbait urtez beste musikarientzat lanean aritu ondoren 2008an hasi zen bakarka, "folk idorra" eginez hasieran Usopopera ekarri dutenek kontatzen dutenez. Azken diskoan harago joan da, musika beltzaren arima ere bereganatuz.

Etorkizunan elkartzen diren dantzari, koreografo, musikari eta konpositoreen *Leihotik* ikuskizuna eta A Side B Side DJekin bukatuko da jaialdia. ■

Gorka Bereziartua Mitxelena

| JABIER AGIRRE |

Zaindu kolesterola, zaindu bihotza

OSASUN INKESTA BATEK DIOENEZ, lehen mailako arretako bost pazientetik lauk ez dute kolesterola kontrolatzen. Eta odol-analisi baten emaitzak erakutsiz gero, guztizko kolesterol kopuruari besterik ez liokete erreparatuko, zifra hori baxua izateak –200dik beherakoa azken urteotako odol-analisietan, orain urte batzuk 250 miligramo arteko zifrak ere onartzen ziren arren– osasun egoera egokia ziurtatuko liekeela pentsatuz.

Esan beharra dago, hala ere, axolagabetasun hori pazienteen kalterako izan daitekeela, ondo frogatuta baitago kolesterol mailak neurrian mantentzeak %40 murrizten duela bihotzeko istripuren bat jasateko arriskua. Zer dago, bada, kontraesan horren atzean? Inkestak berak erakusten du pazienteen %20k baizik ez dituztela ulertzen kolesterolaren parametroak.

Gainpisuaren ondorioz, kolesterol "ona" gutxitu egiten da.

Zer dira kolesterol "ona" eta "txarra"?

Kolesterola gibelak jariatzen duen gai koipetsua da, neurri egokian gorputzeko zenbait zelularen funtzionamendurako ezinbestekoa. Koipe horrek ezin du odolean barrena libre zirkulatu, eta horregatik proteina batekin lotzen da, garraioa errazteko. Kolesterola zernolako proteinarekin lotzen den, bi gai horien batura edo multzoa (lipoproteina) izan daiteke:

- **Dentsitate baxukoa, LDL kolesterola edo kolesterol "txarra".** Hau da arteriak buxatu eta arrisku kardiobaskularra (arazo koronarioak, infartuak etab.) areagotzen duena. Odol-analisi batean LDL kolesterolaren zifrak ez luke 200 miligramotik gorakoa izan behar inola ere, baina mailarik egokiena odol dezilitroko 150 eta 190 miligramo bitartekoa litzateke.
- **Dentsitate altukoa, HDL kolesterola edo kolesterol "ona".** Kolesterol mota honek txarra "arrastaka eraman" eta arteriak garbitzen ditu. Horregatik, haren kopurua dezilitroko 45 miligramotik gorakoa izatea komeni da.

Nola jaitsi kolesterol txarra?

Hona hemen jarraitzeko aholku erraz samar batzuk:

- **Murriztu zenbait elikagai.** Haragi gorriak, hestebeteak, gurina edo esnekiak, osoak batez ere. Mariskoa ere gutxiago kontsumitu –poltsikoak eskertuko dizu–, eta arrautzak ere neurrian, astean hiru edo lau baino gehiago ez.
- **Azukrea mugatu.** Sobera hartzeak ere gantza arterietan pilatzea ekar dezake.
- **Zuntz ugari hartu.** Zuntzak "erratzaren" lana egiten du, kolesterol txarra kanporatzen lagunduz.
- **Kontrolatu estresa.** Tentsioaren menpe bizi bazara, gorputzak kolesterol gehiago sortuko du.

Eta kolesterol ona gehitzeko, zer?

Kolesterol onaren maila baxuak txarra altu izateak adina arrisku ekartzen dio bihotzari.

- **Saiatu soberako kilo horiek kentzen.** Gainpisua dagoenean triglizeridoak erruz ugaltzen dira, eta horiekin kolesterol ona gutxitu egiten da.
- **Hartu omega 3 azidoak eta oliba olioa.** Lipidoen metabolismoa erraztu eta HDL mailak igoarazten dituzte.
- **Edan ardo beltza, neurrian noski.** Ardoaren polifenolari esker odoleko kolesterol on kopurua igo egiten da. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak multimedia aholkularitza edukiak

iametza interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Zein animalia da benetakoa?



RICARDO KOHN

Ezkerrean, Gideon Mantellek egindako iguanodonaren lehen marrazkia. Eskuinean, ornitorrinkoaren eskeletoa. Lehena egiazkotzat jo zen 50 bat urtez; aldiz, adituek luzaroan esan zuten ez zela posible ornitorrinkoa benetako animalia izatea.

CUCKFIELD (INGALATERRA), 1822. Mary Ann Mantellek hagin handi fosildu bat aurkitu zuen Tilgateko basoan. Aurkikuntzaren berri senarrari eman zionean, hark, Gideon Mantell (1790-1852) geologoak, eremua miatu zuen beste arrasto batzuk aurkitu arte, eta horiek aztertzeari ekin zion. Ikerlana 1925ean eman zuen argitara. Basoan aurkitutako arrastoak muturrean adar bat zeukan hamabi metroko iguana erraldoiari zegozkion, Mantellen esanetan. Samuel Stutchbury Zirujauen Errege Elkarteko naturalistak esan zion haginak iguanarena zirudiela, askoz handiagoa izan arren, eta horregatik ondorioztatu zuen geologoak animalia hark iguana erraldoiaren itxura izango zuela. Eta horregatik jarri zion *iguanodon* izena; "iguanaren hagina" esan nahi du..

Mende erdiz ez zuen inork zalantzan jarri Mantellen iguana erraldoi adarbakarra. Baina 1878an, Belgikan, Bernissarteko meatzean, Louis Dollok espezie bereko 38 aleren arrastoak aurkitu eta aztertu zituen. Iguanodonak Behe Kretazikoan bizi izan ziren Europan, Mantellek esan bezala lauoindunak izan arren, oinbikoen jarrera hartzeko gaitasuna zuten eta muturrean ez zuten adarrik; Mantellek adartzat jo zuena dinosauroaren ezproi itxurako erpurua zen. Belgikako aurkikuntzen ondorioz, ezproia zegokion tokian jarri zioten animalia desagertuari, baina iguanodon izena atxiki zuen. Mantelli zuhurtziarik eza eta zientzia egin nahian Mr. Potatoan jolastu izana egotz dakioke, baina iguanadona historian izendatutako bigarren dinosauroa baino ez zen, eta garai hartan paleontologian ez zegoen aurkikuntzak alderatzeko tipologiarik. Gainera, gehiegizko zuhurtasuna ere ez zen beti onuragarri.

Urte batzuk lehenago, 1799an, George Kearsley Shaw (1751-1813) botanikari eta zoologoa Britainiar Museoko historia naturaleko saileko kontserbatzailea zen. Hegoaldeko Gales Berriko gobernadoreak animalia espezimen arraroa bidali zion Australiatik: sator handi modukoa zen, baina kastoreen isatsa zuen, eta ahateen mokoa. Shawek faltsifikazioa zela ondorioztatu zuen eta haren inguruko adituak bat etorri ziren. Garaiko prentsak "txinatarren ohiko munstrokeria eta iruzurtzat" jo zuen ustezko animalia. Baina hurrengo urteetan ale gehiago iritsi ziren Europara eta, azkenik, 1884an, William Caldwell enbrologo eskoziarrak animalia horietako bat arrautza erruten ikusi zuen Queenslanden; iguanodona zuzen birmuntatu eta urte batzuetara, zientzialarien komunitateak ornitorrinkoa existitzen zela onartu behar izan zuen. ■

| JAKOBA ERREKONDO |
mandio@zerain.com

Tomatearen zapela

TOMATEAK (*Lycopersicon esculentum*) adina kontu sortzen duen lagunik ez dugu baratzean. Ameriketatik ekarria, Europako lurralde bero eta lehorretan hedatu zen eta hango jendearen migrazioarekin pixkanaka zabaldu. Baita guregana iritsi ere. Euskaldunek errezelo gorriz hartzen zuten kanpotik etorritakoek gatz ttantta bat bota eta, raka-raka, koskaka jaten zuten fruitu bigun urtsua. Eginda bai, saltsetan erraz etxekotu zen, baina gordinik gutxik jaten zuten. Gure etxean, amonak mordoa egiten zuen baratzean, baita saldu ere leka, piper eta urazekin batera, baina aitonak zahartu eta gero ikasi zuen gordinik jaten. Geuk ere, umetan, gordinik azukrea botata jan ohi genuen... Gerora ikasitakoa da olio-ozpinetakoa.

Tomatea jaten ikastea ederki kostatu zaigu, baina orain amorratuak gara. Tomatea gordinik jaten ez duen oso lagun gutxi topatuko duzu. Eta makurrago dena, urte guztian nahi dugu. Euskal Herri hezea, ordea, ez da tomate tokia. Tomate urtea mirariaren hurrengoa da. Tomateak gauza bakarra eskatzen du: bero lehorra. Eta hori da hemen mirari! Ia-ia Otxandioko pikoaren parekoa da beheko aldeko lurretako tomatea.

Oraintxe da tomatea lur heze horietan aldatzeko sasoia. Hona tomatea izan nahi duenarentzat aholku batzuk. Bertan urte asko

JAKOBA ERREKONDO

daramatzan aldaera edo klasea aukeratu: Narbartekoa, Igeldokoa, Aretxabaletakoa, Tuterakoa, Zarauzkoa, Erandiokoa, Murchantekoa... Toki beroena aukeratu, ahal baduzu hegora begira dagoen horma baten kontra. Landare batetik bestera tarte handia utzi, eguzkiak landare osoa berotu eta lehortu behar du, baita lurra ere. Airea erraz mugi dadila, hezetasuna eraman dezan. Aldatzerakoan lur-tontor bat eraiki eta gaineko muturrean aldatu. Zuloan asun (*Urtica dioica*) hosto edo zarbak jarri, lur pixka batekin estali eta gainean aldatu. Sakon sartu, zurtoinetik sustraiak emateko joera handia du, eta horrek lagundu besterik ez du egiten. Haren tartean tajeteak (*Tagetes patula*), ilenak (*Calendula officinalis*) eta albahakak (*Ocimum basilicum*) jarri. Itsasteko ureztatzeko, egun batzuez asuna eduki duen ura erabili. Landareari zauririk ez egin, juxtu-juxtu kimatu, baina azpiko hostoak ez kendu; zaurietatik sartzen dira gaitzak. Egun beltzak badatoz eta gorrina eta halako gaitzak agertzeko arriskua bada tratamenduan salda bordelesa, sufrea, azeribuztan-ura eta esnea nahastuta eman. Eta ihintzaren hezetasun kaltegarria kentzeko arbatzean jarri dizkiogun makilatik makilara zapela lana egingo duen plastiko edo oihal bat jarri. Goia estalia, alboak libre. ■

%31

Toki beroan bizi al zara? Udan aire egokitua erabiltzen al duzu? Etxeari hegoaldean eta mendebaldean zuhaitzak jartzeak zure argindar gastua murrizten duela jakin ezazu. Kalifornia errean egin duten ikerketa batek argi azaldu du: %31 gutxiago gastatuko duzu. Euskal Herri berorako aholkua: emaitza hau lortzeko azkarrena platanoa omen da, *Platanus x hispanica*. ■

Bigarren argitaraldia eskuetan

Dagoeneko eskuratu dezakezu Jakoba Errekondoren *Bizi Baratzea* liburuaren bigarren argitaraldia ARGIAn eta ohiko saltokietan. Azalean honako esaldia azpimarratu dugu: "Baratzean lurra iraultzen den bezala, iraultza dakar baratzeak".

***Bizi Baratzea* liburuaren aurrerapena ikusgai**
www.argia.eus/baratzea-lagina helbidean.

Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAn erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzurekin jaso dezakezu liburua.

Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusi ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak

Salneurria: 23 €
Harpidedunentzat: 19,50 €

✆ 943 371545
www.argia.eus/denda
denda@argia.eus

@bizibaratzea · Informazio gehiago: www.argia.eus/bizi-baratzea

AURKEZPEN HITZALDIAK

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan.
Hauek dira ondorengo hitzorduak:

Maiatzak 19
Berrobi
Kultur Etxean, 19:00etan

Maiatzak 21
Etxarri Aranatz
Liburutegian, 19:00etan

Maiatzak 23
Hernani
Karabelekoren egoitzan, 11:00etan.

Maiatzak 23
Bedaio
Elkartean, 18:00etan

Maiatzak 26
Gasteiz
Elkar liburu-dendan, 18:30ean.

Maiatzak 29
Baztan
Iruritako Jauregiarte Taberna Kulturalean, ordua zehazteke.

Maiatzak 30
Saldias-Labaien.
Euskadi Irratiko Landaberri saioarekin batera, 9:30ean.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu.

sustapena@argia.com
✆ 943 371 545

IMANOL ESNAOLA

«Udalerri euskaldunak inguru hauskor bezala ikertu behar dira»

UEMAk eskatuta, Gaindegiak zenbait azterlan egin du udalerri euskaldunen ezaugarri sozioekonomikoen egoeraz eta bilakaeraz. Imanol Esnaolak koordinatu du lana. Ondoko galderari erantzuten saiatu dira: Zer gertatu da inguru euskaldunetan halako bilakaera soziolinguistikoa izateko? Esnaolaren ustez, lurgune euskaldunek soziolinguistikoki duten izaera hauskorra ez da aintzat hartu, eta ez da berariaz azterketa eta esku-hartzerik egin.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

GAINDEGIA.EUS

"Udalerri batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso euskaldunean. Horiek babestuta daude. Beste batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso erdaldunean. Horiek arriskuan daude".

Lehenengo aldia al da horrelako azterketa bat egiten dela?

1982an, EAEko Euskararen Legea egin zenean, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen puntu bat. Hark zioen udalerriek egoera soziolinguistikoaren araberako hizkuntza politikak egiteko aukera izango zuketela. Geroztik, udalerri euskaldunei, inguru soziolinguistiko hauskor moduan ulertuta, ez zaie arretarik eskaini, ez ikerketari dagokionez, ezta esku-hartze berezituei dagokienez.

Zer egiten dugu inguru hauskorrotan? Eskola euskaraz; bai baina hori baduzu hiri erdaldunagoetan ere. Telebista euskaraz? Eta beste

mila kate gaztelaniaz. Administrazioa euskaldundu? Bai, baina etxebizitza politikaren bidez sare informaletan erdal hiztunak saldoka txertatu. Inguru euskaldunek ez daukate bertako hizkuntza komunitateari eusteko eta biziberritzeko baliabiderik, ez estrategiarik. Are gehiago, horren gaineko ezagutzarik ere ez dugu garatu. Ongi dago euskararentzat eremu berriak eskuratzea, gabezia sumatzen dut ordea, ohiko erabilera eremu eta erabilera arauei eusteari dagokion interbentzioetan.

Udalerriotako bilakaera sozioekonomikoa eta soziolinguistikoa lotuta al daude?

Zalantzarik gabe. Udalerri euskaldunetan, biztanleria %8 hazi da, harik eta herritik kanpo jaiotakoak %51 izatera iritsi arte, eta etxebizitza kopurua are gehiago hazi da, %38. Gainera, etorri berrietako askok ez dakite euskaraz, biztanle euskaldunak zahartzen eta hiltzen ari dira, herriko gazteen hamarretik zazpi kanpora doaz ikastera edo lanera.

Datu demolinguistikoak alderatu aldagai sozioekonomikoekin, eta egia, bat datoz. Etxerik eraiki ez balitz euskaldunagoak izango lirateke herri horiek? Nik ez diot hori, beharbada lehen bezain euskaldun, eta beharbada are erdaldunago. Azken hamarkadetako bilakaera ez dut kontatu nahi tragedia balitz bezala, prozesu mekanikoa balitz bezala baizik. Inguru hauskorrak dira, eta hori kontuan hartuta ikertu behar dira. Ez dezagun ahaztu, halaber, hizkuntza eskubideen jabe direla, elebidun izan beharrik gabe.

Udalerri euskaldunaren hizkuntza ingurua aztertu duzue, alegia, euskara gaitasuna eskualde buruan eta udalerriaren hamar kilometroko erradioan. Zer garrantzi du horrek?

Udalerri euskaldunek inguruan zein herri dauzkaten aztertu dugu. Esate baterako, Hondarribia eta Oiartzun arrisku handieneko herrien artean daude. Hondarribia gipuzkoar eta nafar askoren ametsetako bizilekua da, eta Oiartzun antzeko zerbait. Lehenak Irun du aldamenean, eta 70.000 erdal hiztun ditu. Bigarrenak Irun bera, Donostia, Errenteria, Lasarte-Oria ditu alboan... Hondarribian eta Oiartzunen etxeak egiten badituzu, biztanle kopuru bat eskualde burutik etorriko zaizu, eta zerbitzu bila herritik ateratzen bazara oso litekeena da eskualdeko udalerri burura joatea. Hor euskaraz aritzeko aukerak galtzaile. Erradioari dagokionez, udalerri batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso euskaldunean. Horiek babestuta daude. Beste batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso erdaldunean. Horiek arriskuan daude.

Ehun ekonomikoa aztertu duzue.

Lanerako sasoian dagoen jendeak bizimodua non egiten duen jakitea oso garrantzitsua da. Egunero Zaldibiatik Donostiara joaten bada lanera, haren hizkuntza praxia eta eragina asko aldatzen dira, baita trebetasuna ere. Agian, gaztelaniaz egin behar du Donostiako lantokian. Egunero itzultzen da etxera, bai, baina egun osoa kanpoan pasa du eta ez da herri komunitatean hiztun aktiboa.

> **"Kontua ez da tragedia kontatzea edo nostalgikoa izatea, kontua da gertatzen ari dena prozesu mekaniko gisa aztertzea"**

Ehun ekonomikoa nolakoa den aztertzeak etorkizunean udalerriotan nolako jarduera ekonomikoa egon daitekeen azal dezake. Adibidez, udalerriotan industriako enpresa gehienak teknologia maila apalekoak dira, eta ondorioz, aurreikusi daiteke asko ixteko arriskuan izango direla. Enpresak ixten badira enpleguak galduko dira, eta langabeziak gora egiten badu herritarrak kanpora aterako dira lan bila. Hiztun euskaldunak batetik bestera dabiltza edo galdu egiten dira. Halako kate bat osa daiteke.

[Grafikoa erakutsi dio kazetariari]. Zein herri ikusten dituzu? [Arama, Aduna, Altzo, Gaztelu, Zizurkil, Zerain, Segura...] Langabezia tasaren hazkunde handienetakoak non daude? Udalerri euskaldunetan. Hamar langileko tailer txikia ixten bada langabeziak asko egiten du gora. Bertan ez bada lanpostu berririk sortzen, inguruko herriren batera joango dira lanera, eta agian bizitzera. Eremu horietako egitura ekonomikoa ere diseinatu egin behar da.

Udalerriotan euskaldunak euskaldun dira hala etorri zaielako. Zuk esana da.

Aipatu ditudan aldagai sozioekonomikoak oso garrantzitsuak dira, hain zuzen ere udalerri euskaldunetako euskaldunak ez direlako euskaldun hala erabaki dutelako, baizik eta hala etorri zaielako. Beraz, baldintzak aldatzen badira jarrera ere aldatu egiten da. Euskaldun izateaz harro daude, baina ez dute erresistentzia mekanismorik. Koherentzia gordetzen zuten elementuak aldatzen ari dira, eta horrek kezkatzen nau. Ez dira erdaldundu borondatez, ingurua erdaldundu zaielako baizik. Lehen esandakoak: erdalduna dator (eta berak ez du errurik), bertako euskaldun gazteek alde egin dute, zaharrak hil dira. Berriro diot, kontua ez da tragedia kontatzea edo nostalgikoa izatea, kontua da gertatzen ari dena prozesu mekaniko gisa aztertzea. ■

Azterketaren sei txostenak

Ondoko datu bilketak egin ditu Gaindegiak:

- Enpresa demografia.
- Etxebizitza parkearen bilakaera.
- Biztanleriaren jatorria.
- Biztanleriaren irautea eta erakartzea.
- Udalerri euskaldunen hizkuntza ingurunea.
- Biztanleriaren mugikortasuna.

Informazio guztia: www.uema.eus/azterketak

- Udalerri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoaz elkarrizketa Iñaki Iurrebasori: www.argia.eus/argia-astekaria/2460/inaki-iurrebaso

Adinekoari besotik heltzea baino zerbait gehiago

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

MALEN ETXEA

"Emakume askori berotu diogu burua", dio barrez Guzmanek; "ahaldundu egiten gara elkarrekin, eta edozein zapalkuntzaren aurrean ezetz esaten ikasten dugu". Irudian, Malen Etxeak Urola Kostan antolatutako hausnarketa jardunaldia.

Malen Etxea

Esanahaia: Malen, emakumea maputxez.
Eragin lekuak: Urola Kosta, Donostialdea eta Tolosaldea.
Elkarteko kide kopurua: 88 emakume.
Helburua: Atzerritik etorritako emakumeei arlo ekonomiko zein sozialean laguntza eskaintzea.
Sorrera urtea: 2003.

JESSICA GUZMAN CORREA orain zazpi urte iritsi zen Txiletik Euskal Herrira beharrera, eta zaintza lanetan aritzen da atzerritik datozen beste emazte asko aritzen diren moduan. Malen Etxea proiektuko presidentea da gaur egun, emakume etorkinen elkargune, hausnarketa feministak bideratzeko leku eta atzerritik etorritako emakumeen arteko laguntza bultzatzen duen taldeko kide.

Lan mundura salto egiten laguntzen saiatzen dira elkartean, eta baldintza duinak exijitzen dituzte atzerritik etorritako emakumeentzat. Hego eta Erdialdeko amerikarrak dira nagusi hamabi urte dituen proiektuan. Garbi daukate edozein lekutan bizitzeko beharrezkoa dela babesa, harreman sarea, eta hori eskaintzea dute helburu. Ahoz ahoko harremanez dago antolatuta gehienbat, eta horrela iristen dira kide berriak ere; lagun batek zerbait komentatu diolako, ezagun batek taldera deitzea gomendatu diolako...

Momentuko estutasunetik ateratzeko etxe bat ere badaukate Zestoan. Iritsi berriak direnei eta/edo etxerik gabe daudenei eskainitako zerbitzua da.

Zaintza lanetako eskaintza eta eskarietan bitartekari

Asko lan bila dabiltzalako gerturatzen dira proiektura, eta beste askok langile baten beharrean deitzen diete. Zubi lanak egiten ahalegintzen dira, baina beti ere hasieratik legeak finkatutako gutxiengo baldintza batzuk eskatuta: hamalau ordain-sari, asteko jai egunak, eguneko ordutegia, betebehar zehatzak, eta abar. Jakin badakite zenbait kasutan ezinezkoa dutela kontraturik egitea pertsonak bizi dezakeen egoera tarteko, baina puntu batzuk markatzen dituzte. Horiek betetzeko prest ez dagoenari bitartekaritza lana mozten diote.

Formakuntza eta ahalduntze saioak ere egiten dituzte elkarrekin. Talde feminista bezala deskribatzen dute Malen Etxea bertako kideek. Lanketa garrantzitsua egiten ari dira baldintza duinen eta esplotazioaren inguruan. Askok esklabotza egoerak bizi izan dituzte zenbait etxetan. Gau eta egun lanean, asteko zazpi egunetan, tratu txarrak jasanez... Arrazismoa, eurek garbi azaltzen duten moduan. Eta formakuntza eta ahalduntze saio horiek horrelako egoeren aurrean erantzuten ikasteko balio die, bai indibidualki eta bai kolektiboki.

Zaintza lanek sistema kapitalistak ulertzen dituen moduan funtzionatzen duten bitartean, Malen Etxean badakite emakumeek jarraituko dutela behar horiek asetzen; halaber, elkarte honetan lan horien kolektibizazioan sinesten dute, inguru hurbileko sareetan oinarritutako zainketa kolektiboan. ■

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2015

PPren azken gotorlekua eror liteke Araban

Araba ezkutuan izan da sarri euskal lurraldeen artean, asko nabarmendu barik. Edo bai, Espainiako eskuinak azken urte luzeetan bere euskal gotorleku gisa agertu du. Hori da orain kolokan jarri dena eta, Nafarroan bezala, euskal herritar askoren begirada Araban finkatu da.

| XABIER LETONA |

Araba jeltzale eta popularren lurraldea izan da azken 30 urteetan, bai Gasteizko Udalean eta baita Foru Diputazioan ere. Jose Angel Cuerda, Ramón Rabanera, Alfonso Alonso... dira azken hamarkadetako agintari ezagunenak. Salbuespen bakanak izan dira, PSEk bitan hartu du agintea, behin Diputazioan –ETAk hil zuen Fernando Buesaren eskutik 1987-1991)– eta beste behin Gasteizko Udalean (2007-2011, Patxi Lazkoz). Azken 16 urteetan PP izan da alderdi nagusia lurraldean (1999an eta 2003an EAJ eta EA koalizioan joan ziren salbuespenekin), baina EAren sostenguak 2007-2011n Xabier Agirre jeltzaleari eman zion Diputazioko aginte makila.

Bat-batean, hala ere, ezuste handia izan zen 2011n, infografietan argi ikusten den bezala. Bilduk (Sortu, EA eta Alternatiba) gorakada historikoa izan zuen eta ondorengo bi hauteskundeetan ere joerak jarraipena izango zuen. Ordura arte, ezker abertzalearen eta EAren azken 25 urteetako garairik onenak batuta ere, ez ziren 30.000 botora iristen. 2012ko Espainiako Legebiltzarrerakoetan 34.000 boto lortu zuen Amaiur koalizioak (egungo EH Bilduk). Azken danbatekoa 2014ko europarretan izan zen, lehenbiziz historian ezkerreko abertzaleen koalizio batek irabaztea lortu zuen Araban, hori bai %43ko partehartzearekin.

Edozein eratan, gauza bat oso garbi izan behar da Araban, Batzar Nagusietako eserlekuen %65 Gasteizen erabakitzen da, 51tik 38. Gasteiz azken 35 urteetan 50.000 biztanle handitu da (Bilbok 84.000 bat galdu ditu adibidez) eta 1980an Eusko Jaurlaritza han finkatzeak badu zerikusirik hazkunde horrekin. Edozelan izanda ere, PPk ez du gustuko gertatzen ari den hegemonia aldaketa, azken urteetan boto espainiarzalea atzerakada handia izaten ari delako. Ikusi behar azken bost urteetako joera mantentzen den. Javier de Andrés ahaldun nagusiak argi du eta bere ustez, bai Arabaren euskalduntze datu positiboak eta bai boto abertzalearen gorakada, Bizkaitik eta Gipuzkoatik euskararen abantailarekin administrazioan "arabarrei lana kentzera" etorritakoen ondorio da. Eta testuinguru horretan, aurrekanpainan EH Bildurekiko argiago mintzatu zen: "morralla hori".

GORA GASTEIZ

Javier Marotok ez du zalantzarik izan hauteskundeei begira immigrazioaren mamuak haizatzeko eta herritarrek Gora Gasteiz ekimenarekin erantzun diote.

PPren gai izarra, baina, Arabara lanera etorritako immigranteena da eta Javier Maroto Gasteizko alkateak kanpaina gogorra bideratu du esanez hauek iruzur egiten dutela Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE) diru-laguntzekin. Gora Gasteiz herri ekimen arrakastatsuarekin erantzun diote herritarrek, baina Marotok jadanik 40.000 sinadura bildu ditu Eusko Legebiltzarrean lege proposamena egiteko.

Ez da PPren erreinua

Iñaki Larrañaga
KAZETARIA

ORAIN DELA lau urte PPk irabazi zituen udal nahiz foru hauteskundeak, Araban eta Gasteizen. Maroto alkate izendatu zuten, eta De Andres ahaldun nagusi, PSEren botoei esker. Gezurra badirudi ere, hemendik egun gutxira, maiatzaren 24ko bozetan, bi erakunde horietan gobernu abertzaleak eratzeko baldintzak daude. Aldundian batez ere, eta neurri txikiago batean, hiriburuan ere bai.

Batzar Nagusiak

Hiruren arteko lehia estua sumatzeko nahikoa da, inkestak bazterrean utzita, herrialdeko azken bozketak neurtzea: 2011n PP garaile, 2012ko autonomikoetan EAJ, 2014ko europarretan EH Bildu. Edonork irabazi dezakeen oreka horretan, lehenbiziko suertatzeak ez du Arabako agintea bermatuko. Indar bozkatuena oposizioan gelditu da zenbaitetan: 1987an, 2003an eta 2007an. Oraingoan ere bai, hauteskundeen osteko akordioetan egongo da gakoa.

Alderdi Popularra esku hutsik utziko luke Gasteiz eta Araba galtzeak. Dena ematen ari dira kanpainan haien azken euskal gotorlekua defendatzeko. Kezkatzeko arrazoiak dituzte. Espainiako PPren beherakadak islada izan ohi du Araban. Eta, azpimarratzeko arrazoia: De Andresek ez du inbestidura saioan PSEren babesik izango, 2011n izan zuen bezala, orain ez dagoelako Ajuria Enean mesedea itzuli behar dion Patxi Lopezik.

Eskurik onena EAJk dauka. 2012an 40.000 botoen langa gainditu zuen Araban, Urkulluren alde. Horri eutsiz gero, lehen indarra lirateke. Baina bestela ere, PPren atzetik egonagatik, gehiengoa lortzeko EH Bilduren botoak jaso ditzake Aldundian.

2011n koalizioak "doan" eman zizkion. PSEren babesa ere hel dakioke. Aldundiko makila hartzeko aukera handiak Ramiro Gonzalez jeltzaleak ditu.

EH Bilduri dagokiona Europako hauteskundeetako sorpresa berrestea da. Boto leialaz gain, Salburua eta Zabalgana auzo berri, gazte eta jendetsuetan zabaltzeko joerari eustea. Garaipena gaitza da, Gasteizen zein Araban, baina inoiz baino posibleagoa. Hori bai, lehenbiziko izanda ere, nahikoa babes izango ote luke EH Bilduk Aldundirako inbestidura saioan? EAJrena? Irabaziko ezkertiarrena, akaso? Madrilen gorrotoko luketen Podemosena? Aliantzen jokoa da, itxura batean, EH Bilduren Akilesen orpoa. Dena den, ezingo zaio Gipuzkoa eta Nafarroa aldean gertatuko denari begirik kendu, horrek ere eragina izango baitu Arabako itunetan.

IREKIA. EUSKADI.NET

PPk oraingoan ez du PSEren laguntzarik izango Foru Aldundia eskuratzeko, Jaurlaritzan ez dagoelako haren beharrik duen Patxi Lopezik.

Udalerriak

Udalerri handienetan ere oreka harrigarria da: Laudion, Amurrion eta Agurainen, bi alderdi abertzaleen arteko lehia ehunka boto batzuen bueltan ibili zen 2011n. Aurten ere aurrez aurreko berdina espero dute Aiaraldean eta Lautadan.

Gasteizen, Maroto alkatearen berrespen froga dator. PPren itxaropena. Batetik, hirian garatutako azpiegiturek eskaini dioten aitortza dauka: autobus geltokia, Hiribidearen berritzea, Salburuko Gizarte Etxea... baina, bestetik, zenbateraino higatuko dituzte lorpenak, azken urteko iskanbilek? DBEren kontura sortutako afera arrazistak kaltetuko duen, ala, aldiz, txokokeria vitorianoak indartuko duen, zinez gauza ezezaguna da.

Azken finean, popularrek udaletxean erraz irabaztekotan, ezohikoa litzateke "galtzaileek" Marotori alkatetza galaraztea. Aldiz, EAJ zein EH Bilduekin berdinketa gertatzekotan 25.000 botoren inguruan, giltza hauteskunde osteko itunek izango dute. Koalizioak kanpainan iradoki du, behar izanez gero alkategai jeltzalearen alde egingo duela.

Inkestetan EH Bildu jeltzale eta popularrekin da podiumean

Araba 2011

BOTO KOPURUA

ALDERDIA	2011	2007
PP	39.631	39.761
EAJ-Hamaikabat*	36.196	39.010
Bildu	31.998	-
PSE-EE	24.879	39.596
EB-Berdeak**	6.258	10.207
Aralar**	4.168	10.207
EA	-	8.709
EAE-ANV***	-	13.113

* EAJ bakarrik aurkeztu zen 2007an.
** Aralar eta EB koalizioan aurkeztu ziren 2007an.
*** EAE-ANVren datuei boto baliogabeak gehitu zaizkio.

Abstentzioa	%36,4	%36,2

BATZAR NAGUSIEN OSAKETA



Infografietako emaitzetan 2007 eta 2011ko emaitzak ikus litezke eta ondorengo lerroetan lau inkesta, hiru hedabiderentzat eta hainbat garaitan eginak.

Eusko Jaurlaritza (*El Correo*rako, maiatzak 8)

Araba: EAJ %20,7; EH Bildu %20,4; PP %19,7; PSE %15,0; Podemos %12,2; Ciudadanos %3,7; Irabazi %3.
Gasteiz: PP %20,5 (6 eserleku); EAJ %20 (6); EH Bildu %19 (6); PSE %16,5 (5); Hemen Gaude %9 (3); Irabazi %5 (1), Ciudadanos %4,5.
(Informazioaren bilketa apirilaren 22tik 29ra. Lagina, 2.170 pertsona).

Gizaker (*Deia*rako, apirilak 25)

Araba: EAJ %24,6 (16); EH Bildu %22,3 (13); PP %16,4 (9); PSE %13,9 (8); Podemos %10 (4); Ciudadanos %4,1. (1).
Gasteiz: EAJ %22,5 (7); PP %22,3 (7); EH Bildu %18,6 (6); PSE %14,2 (4); Podemosek lagundutako hautagaitza %10,5 (3).
(Apirilaren 13tik 20ra egin zen. Lagina, 1.150 pertsona).

Gasteiz 2011



Gizaker (*Deia*rako, urtarrilak 24)

Araba: Podemos %20,7 (12); EAJ %19,9 (12); EH Bildu %17,3 (11); %13,7 (7); PSE %12,5 (6); UPD %4,7 (2); Ezker Anitza %4,2 (1).
Gasteiz: PP %18,5 (6); %18,4 (6); Podemosek sostengatutako hautagaitza %16,3 (5); EH Bildu %14,3 (4-5); UPD %5,3 (0-1); Ezker Anitza %4,7 (0-1).
(Urtarrilaren 7tik 13ra. Lagina, 3.000 pertsona).

Torrene Consulting (*Gara*rako, 2014ko azaroak 21)

Araba: EAJ %23,5 (14); EH Bildu %21,5 (12); PP %20,3 (12); PSE %14,5 (8); Podemos %8,5 (4); UPD %2,7 (1).
Gasteiz: PP %22,7 (7); EAJ %21,0 (6); EH Bildu %19,8 (6); PSE %15,1 (5); Podemos %10,5 (3).
(Urriaren 13-31. 1800 pertsona).

Azken 16 urteetan PPk ez du horren zakar jarduteko beharrik izan, ETA eta gatazkaren ingurukoak nahiko trinkotzen zioten botoa. Orain ordea, hor ditu Vox eta, batez ere, Ciudadanos, eta boto guztiak dira garrantzitsuak podiumeko lehian. Ikusteko dago nola eragingo dioten auzitegietara iritsi diren bere kudeaketapeko ustezko ustelkeria kasuek (Iradier Arena, 21 Zabalgunea, San Antonio kaleko lokalak...).

Ikusteko dagoen moduan De Miguel auziak nola eragingo dion EAJri, tartean diren 30 inputatuetako pertsona esanguratsuenak berari lotutakoak dira eta. Oraingoz, inkestek ez diote ezustekorik iragartzen alde horretatik.

EH Bilduren bilakaerari zorrotz jarraituko zaio, baina horrek badu bere oinarria. Ezustekoa oraingoan Podemosetik etor liteke, nahiz eta inkestetan puxika husten ari den. Bere botoak giltzarri izan litezke, batez ere gobernatzeko erabiltzen badituzte.

PPren hegemonia handia izan da azken 16 urteetan eta, Nafarroan bezala, aldaketa eskaerarik ez da falta Araban. PP-PSE blokea nagusituko zaio berriz EAJ-EH Bilduri, 2011n bezala? EAJ-PSE ildo zahar-berria ote dator agintzera Gasteiz eta Arabara? Edo, beste barik, EH Bilduren bozkak jasoko ditu EAJk? ■

Desobedientzia Gasteizen

28 gazteren aurkako epaiketa zazpi gazteri seina urteko espetxe zigorra ezarrita amaitu da. Epaia publiko egin aurretik Ertzaintzak horietako lau atxilotu zituen eta beste hiruk ihes egitea lortu zuten. Gasteizen milaka pertsona batu dira igandean eta herri harresia antolatu dute. Aiala Zaldibar, Ibon Esteban eta Igarki Robles ezkutalekutik atera ziren unea ikusgai argazkian. Identifikazioak zailtzeko ehunka lagunek osatutako harresiak erresistentzia maila igo du kateak, pintura laranja eta hodi metalikoak erabiliz. Ertzaintzak bortizki desegin du harresia eta 60 lagun artatu dituzte erizain boluntarioek. Oraindik ehunka lagun arrazoi politikoengatik epaiketa zain daude. (Argazkia: Axier Lopez)

Medikuntzan graduatu berriak euskaraz ikasi ez dutelako kexu

EHUko Medikuntzako graduazio ekitaldia. Xabier Iturraspe ikasleak hartu zuen hitza eta entzuleei, besteak beste agintariei, azaldu zien zer den EHUn Medikuntza ikasketak euskaraz egitea (edo ez egitea). Iturrasperen hitzaldiak txalo zaparrada bat baino gehiago jaso zuen.

R. Fdez. Serna

Xabier Iturraspe graduazio ekitaldian, euskal lerroko ikaslez inguratuta.

Ikasketen lehenengo zikloa lortu dute euskaraz egitea, eta bigarren zikloan oztopoak ugari izan dira. Praktika eta mintegi gehienak gaztelaniaz jaso dituzte, eta ordu teorikoei dagokienez, Gurutzetan %36 izan dira euskaraz, Basurtun erdia, Donostian %65, eta Gasteizen batere ez.

Iturraspek adierazi zuen EHUn Medikuntza euskaraz ikastea ezinezkoa dela, eta okasioa baliatu zuen dekanotzari eta departamentu buruei borondate falta kritikatzeko. Ikaslearen ustez, irakasleak kontratatzerakoan euskara ezagutza baino garrantzi gehiago dute harreman pertsonalek eta bestelakoek. Errektoretzak beste aldera begiratzen duela esan zuen Iturraspek, eta Osakidetzak EHUrekin duen hitzarmena dela-eta, profesionalek ezin dutela beraiena ez den ospitalean eskolarik eman.

MIR azterketako lehen hamar postuetan geratu diren EHUko bi ikasleak, biak euskal lerrokoak, ekarri zituen gogora: "Ez al du honek frogatzen posible dela mediku ona eta euskalduna izatea?".

Bahea

Idurre Eskisabelek *Berria*n esanak:

"(...) Baina gure sistemaren parte da hurkoak elkarri errezeloz begira jar daitezen sustatzea, elkartasunik eta senidetza aldatzailerik eraiki ez dadin, eta, horretarako, lanabes zoragarria dira aurreiritziak. Era berean, ordea, sistemak gutxieneko kohesioa behar du: kontrolatua behar ditu errezeloak, liskarra bera ere kontrolatua izan dadin, engranajea leher ez dadin. Ondorioz, oreka zailetan ikusten ditugu maiz agintari eta, oro har, diskurtso politiko nagusien egituratzaileak. Kontsentsua izan ohi da hitz fetixea.

(...) Nolanahi ere, kontua da maskararik gabe ari direla aurreiritzi eta mamuen populismo beldurgarriena astintzen. Eta euskaldunok, euskaltzaleok, tresna gabe bezala gaudela, batzuk beharbada haserre, bestetzuk aho zabalik. Oinarrizko hitzarmenerako garaia da: batzekoa eta marra gorriak finkatzekoa, politikeria utzi eta ikuspegi politikoz jokatzekoa. Migranteenean bezala, euskararen auzian ere oinarriak baitaude jokoan: demokraziarenak, pertsonon eskubideenak".

EKONOMIAREN TALAIAN ◦ TERMOMETROA

Maletan bidaiatu zuen haurra

"Je m'apelle Abou", "Abou dut izena". Horixe erantzun zuen zortzi urteko Saharaz beheko haurrak, Tarajal mugako (Ceuta) kontroleko eskanerrak maleta barruan arropa artean aurkitu zuenean. Badirudi haurraren aitak gazte bati ordaindu ziola maleta hura eramateko. Helburua Kanarietan bizi diren gurasoekin biltzea zen. Aita pertsonen trafikoan aritzeagatik salatu dute. Joan den astean gertatu zen, hauteskunde kanpaina bete-betean, baina ez betiko alderdiek, ezta sortu berri direnek ere, jarri dute immigrazioa –ekonomikoa eta politikoa– eztabaidagai, nahiz eta milaka heriotza eragiten ari den.

Maleta sinbolo bat da sentsibilitaterik ez duen eta berekoia eta indibidualista den jendarte honetan. Maletan sartuta haur bat uzkurtuta ikusten den argazki hori urteko irudia izan daiteke, aurre egiten baitio Mendebaldearen larderiari. Honek, bere mugen barruan bizitzeko baimena ematen dio apartamentu bat erosten duen atzerritarrari, baina ez gosetik eta pertsekuzio politikotik biziraun nahian ihesean datorrenari. Globalizazio kapitalistak kapitalen mugimendua baimentzen du, askotan ustelkeria, arma trafikoa eta derrigortutako prostituzioa ezkutatzen duen arren. Baina aldiz, ez du onartzen euren bizitza salbatu nahi duten pertsonen mugimendurik.

Sarkasmo handiz eta lotsa gutxirekin, "Justiziak" haur horren aita kriminalizatu nahi du, "pertsonen trafikoa" leporatuta. Horrelaxe erakusten du Justiziak bere izaera kapitalista. Kapitalaren zerbitzura dauden alderdi handiek eratzen dituzte kode penalak. Eta hala, zigortu daiteke haurra berarekin batzeko edozer egiteko gai den aita, eta ez ordea hori lortzeko maleta batean sartu behar izanaren erantzuleak. Eta erantzule horiek badakigu non dauden: Europako parlamentuetan eta gobernuetan, kasu honetan Espainiako Estatukoan.

Juan Mari Arregi

TTIP eta osasuna: Mexikon gertatuak irakatsi diguna

Europar Batasunaren eta AEBen arteko merkataritza araurik gabe utziz liberalizatu nahi duen TTIP itunak AEBen eta Mexikoren arteko TLCAN edo NAFTAn dauka aurrekaria. Nekazaritza birrintzeaz gain, elikaduraren banaketa korporazioen esku utziz jendearen jateko ohiturak aldatu ditu eta osasun arazo larriak epidemia bilakatu.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

Konpainia mitikoak kaleetan bezala hedabideetan zabaldutako irudian, Coca Colak Mexikon antolatutako promozio kanpaina. Marka liderrak bere bidea egiten du, irudi atsegin bat landu eta salmenten gurdia mugiaraziz. Bitartean, haren jabea den korporazioak oligopolio eskema baten barruan batetik elikagai eta edari sorta osoak ezartzen ditu merkatuan, eta bestetik bere filialen bidez kontrolatzen salmenta kate osoa. Mexikon betiko *tortilla* (taloa) jatetik pizzara edo burguerrera pasatu den herritarra nekez jabetuko da bere eguneroko keinuaren atzean dagoen errealitateaz. *Coca-Colonization* fenomenoak globalizazio neoliberalarekin daukan zerikusiak azaldu zituen Corina Hawkesek 2006an ikerlan honetan: "Dietaren garapen berdintasun gabea: lotuz globalizazioaren politika eta prozesuak elikaduraren aldaketarekin, obesitatearekin eta dietarekin zerikusia duten eritasun kronikoekin".

IZURRIA HEDATU DA MEXIKON 1988tik 2012ra bitartean: loditasunak ekarritako diabetesa. Ez gara estandar estetikoak baino potxoloago dagoen jendeaz ari, gizenegi dagoen edo are gizeneriak (obesitateak) jotakoaz baizik.

Mexikok dauzkan 122 milioi herritarretatik 48 daude pisu egokia baino lodiago, horietatik 22 milioi daude gizeneriaz gaixo eta 6,5 eta 10 milioi artean dira diabetikoak. Populazioaren %7ak dauka diabetesa, 65 urtez gorakoen %21ek. Horrekin paraleloan hipertentsioa ere bihurtu da epidemia.

Aldi berean, paradoxikoki, mexikarren %78k dauzka arazoak eguneroko elikadura eskuratzeko, elikadura segurtasunik eza nozitzen dute modu larriago edo arinagoan. Eskolara doazen hamar haurretik batek anemia dauka. 2012an Mexikoko Osasun Publikorako Nazio Institutuak emandako datuak dira.

Zer aldatu da urteotan? 1994an AEBen eta Mexikoren arteko merkataritzaren erabateko liberalizazioarekin arras aldatu direla mexikarren ohiturak eta aldi berean beren betiko jakiak eskuratzeko aukerak errotik murriztu zaizkiela. Esplikazio hori zehaztu du nekazaritza iraunkorra eta elikadura burujabetza aldarrikatzen dituen GRAIN erakundeak "*Libre comercio y la epidemia de comida chatarra en México*" txostenean.

"Datuok ezin dira ulertu –dager GRAINen martxoko txostenean–esanez batzuek dioten moduan 'jendeak ezberdin jaten du gaur egun aukera handiagoak dauzkalako'. Gauza da elikagai batzuk inposatu egin zaizkiola herriari, eta bitartean orain arte jendeak usadioen eta benetako beharren arabera zaindu eta ekoizten zituen jakiak gero eta nekezago eskuratu ditzakeela".

NBEn Elikadura Eskubideari buruzko Berriemaile berezi Olivier De Schuterrek esan zuen 2012an, Mexikoko alarma deia dela eta: "Gaur abian dauden merkataritza politikek sustatzen dute jendea egotea elikagai oso prozesatu, birfindu eta apaletan luzez irauteko prestatuen mende, gero eta gehiago baztertuz jaki fresko eta erraz galtzekoak, batik bat fruitu eta barazkiak". Hori ekarri zuen aldaketa nagusia 1994an gertatu zen, Mexikok AEBekin sinatu zuenean gaztelaniaz TLCAN eta ingelesez NAFTA deitu liberalizazio ituna.

Itunak AEBetako korporazioei erabat ireki zien bidea nahi adina diru inbertitzeko Mexikoko proiektuetan. Elikagaiak ekoizteko enpresetan 1982an 210 milioi dolar inbertitu bazituzten yankiek, 1999an 5.300 milioi sartu zituzten: bider 25. Inbertsio gehienak jaki prozesatuetan izan dira.

Salmentak gisa berean ugaritu dira, nagusiki *junk food* edo zaborjana deitzen zaien produktuetan: opil, esneki, *sandwich*, *hamburger*... eta edari gozoak, kola eta sasi-zukuak. 1992an pertsonako eta urteko litro laurdeneko 273 botila gozagarri kontsumitzen baziren, 2002an 487ra iritsi ziren.

Begien bistakoa den osasun arazo larriari aurre egitekotan, 2014an Mexikoko gobernuak %8ko zerga ezarri die kaloria askoko jakiei, tartean kakahuete gurina daramatenei eta gosaritako zereal famatuei. Peso bateko (euroaren sei xentimo inguru) zerga daukate freskagarriek ere. Baina horrek ez du asko aldatu mexikarrei osasuna izorratzen dien gaien kontsumoa.

Agur, denda txiki

Zabor-jakien zergak ez ditu kezkatu hipermerkatuen jabeak, ondotxo kontrolatzen dute Mexikoko banaketa sarea. Sekula ixten ez duten komertzioak, hiperrak eta prezio apaletan berezitu *discount*ak 1997an 700 izatetik 5.729tara iritsi ziren 2004an. Hala ere artean 400.000 denda txiki geratzen ziren zabalik Mexikon, 10 metro koadroko postu txikiak. Korporazioen gosea zorrozteko modukoak.

Hasieran denda txikietatik barrena zabaldu dute korporazio handiek Hego Amerikan *comida chatarra* deitzen dutena. Uholde baten gisa barreiatu zituzten kontsumo masiborako asmatutako jaki eta edari gozook. Oso prezio merkean, gainera, korporazio bakoitzak hainbat ataletako produktuak banatzen dituelako, garraioen kostuak optimizatuz.

Ondoren etorri da azken saltzailea bera ordezkatzea, denda txikiak kate gero eta handiagoek irenstea. Coca Colaren filiala den Oxxo katea 2004an iritsi zen 3.500 denda edukitzera, 2012an 10.000 denda zeuzkan eta 2015a bukatu behar du 14.000k osatuta, egunero hiru denda berri irekiz.

Oxxoren konkurrentzia uneotan Soriana katea da. Eta bien aurretik, urrundik, munduko banaketa sarerik handiena, Walmart. AEBen hegoaldean soldata apalak ordainduz Mexiko liderra da jaki elaboratuen ekoizpenean. Orain banaketa sarearen jabe eginik, korporazioek lortu dute haien jakiak nagusitzea mexikarren dietan eta bizimoduan.

Dirutza handiak gastatzen dituzte propagandan eta *public relations* operazioetan zuritzeko berek saldutako elikagaiek eragiten dituzten arazo larriak. "Mexiko osoan barrena –dio GRAINek– publizitateak korporazioak uztartzen ditu herritarrek maite dituzten balioekin: familia, iraunkortasuna, karitatea, osasun ona, kalitatezko enplegua... Interes handia daukate Mexikoko gobernuekin elkarlanean ari direla erakusteko, eta, bitxia dirudien arren, gobernuek ere gogo bera dute".

2013an Nestle eta Pepsik agintariekin antolatu zuten Gosearen kontrako Gurutzada. Nestlek emakumeak ahaldundu eta enpresari bihurtzeko *Mi Dulce Negocio* izeneko operazioa abiarazi du, Nestleren produktuetan oinarritutako opil eta gozokiak salduko dituzten 15.000 andrez osatutako armada txikia antolatzeko.

Dena kosmetika, dio GRAINek. "Aspaldi ulertu zuten elikagaien transnazionalek salmentak zabaltzeko merkatu hoberenak planetaren hegoaldean dauzkatela. Horretarako asmatu, garatu eta saldu behar dituzte munduko milioika txiroentzako produktuak. Jende horiek orain arte elikatu dira beraiek lekuan bertan ekoiztutako jakiekin eta bizimodua ateratzeko antolatuta duzkaten merkatu informalekin".

Kontsumitzaileok sarean harrapatzeko korporazioek hasieran gainezka asetzen dituzte banaketa kanal tradizionalak eta ondoren lekuko jakien ordez janari merke, prozesatuz ordezkatzen dituzte, zabor-janez, sarritan lekuko gobernuan daudenekin elkarlanean.

Orain europarrei ezarri nahi zaien TTIP bezalako itunak, mugarik gabeko merkataritza eta inbertsioa sustatzen dutenak, erabakiorrak dira merkatuak harrapatu eta ordezkatuz multinazionalen irabaziak handitzeko. Mexikok erakusten du politika horrek herritarrei dakarkien panorama gordin eta iluna. ■

Xabier Letona

DANI BLANCO

Itunetan da gakoa, ez irabaztean

NAFARROAN urduritasuna sektore politiko guztien muinera iritsi da. Azken 30 urteetako hauteskunde garrantzitsuenak izan daitezke bertakoak. Araban, euskal PPren biziraupena da jokoan. Eta Gipuzkoan ikusiko da neoliberalismoari aurre egin nahi dion EH Bildu moduko indar independentista bati, irabazita ere, berriz korronte nagusiaren aurka gobernatzen utziko lioketen.

Gizarte aldaketak egun bakarrean neurtzeko termometro garrantzitsuena dira gaur egun hauteskundeak. Batzuetan argi sumatzen da aurreko legealdiko norabide bera eta tentsio eza. Ez da kasua, oraingoan hauteskundeetako emaitzen elkarrizketak gutxitan moduan heltzen ari dira sukalde eta kale txokoetara.

Emaitzek emango dute aldaketaren neurria, baina alderdi klasikoek –ezker-eskuin– hartu beharko dute apunterik azken urteetako hainbat gertaeratik: Podemos, Ciudadanos, gizarte mugimenduetako jauzia politika instituzionalera, hautetsien hautaketarako barne prozesuak, alderdia eta bere gobernuaren arteko harremana… Egokitzeko ahalmena erakusten ez duenak herren helduko dio krisiak ekarritako aro politiko-sozial berriari.

HIPOTESI batzuk. Nafarroa: enpate teknikoa iragartzen dute, ez dago inkestarik bloke bati –UPN-PSN-PP-Ciudadanos / Geroa Bai, Podemos, EH Bildu, Ezkerra– garaipen oso argia ematen dionik. Sortu daiteke bloke arteko osaketarik? Oso gaitza, baina inkestetan bat agertzen da: Geroa Bai, Podemos, PSN eta Ezkerra. Ez litzateke Laura Perezen gustukoena PSNren eskutik joatea, baina Madrilgo Podemosentzat bai, batez ere alternatiba EH Bildurekin joatea bada.

Aldaketa argiaren hipotesia: alternatibaren blokeak –PSN gabe, jakina– 26 eserleku lortzen ditu. Geroa Bai lehena bada, Uxue Barkos izango da hurrengo lehendakaria. Podemos nagusitzen bada Laura Perez. Eta EH Bildu bada blokeko lehen indarra? Logika demokratikoak eramango luke esatera aldaketaren eskeman berak beharko lukeela hurrengo lehendakari, baina… orduan entzungo da "Nafarroako gizartea ez dagoela halako egoera baterako prestatua", edo "horrelako gobernu batek ez lukeela urtebete iraungo", edo "oraindik koalizioak behar duela biziberritze demokratiko sakonagoa" edo beste hainbat aitzaki. Perezek dio programetan oinarrituko direla, Araizek blokeko lehenengo indarraren aukera errespetatuko dutela eta Barkosek ez dakitela, emaitzen ondoren erabakiko luketela hori.

> *"Ez du agintzen boto gehien lortzen duenak, parlamentario, batzarkide edo zinegotzi gehien batzen duenak baino"*

Gerta liteke baita ere UPN, PP eta Ciudadanosek beste blokeak baino gehiago lortzea, 22-21 irabaztea, adibidez. "Salbazio gobernua" litzateke, baina gobernu oso ahula ere bai. Posible litzateke, halaber, abuztuaren 24rako gobernurik ez eratzea eta hauteskundeak errepikatu behar izatea. Eszenatoki txarrena litzateke, eta hori da UPN kanpainan erabiltzen ari den bigarren mamu indartsuena. Lehena baskoak eta EH Bildu dira, eta nola.

ARABAN EAJk eta EH Bilduk nahiko balute, PPk ez luke gobernatuko. Edo berdin EAJk eta PSEk hala nahiko balute. Ezinezko ez, baina oso gaitza izango da PPk Arabako Diputazioa berriz gobernatzea. Eta Gasteizen? Javier Marotok akaso lortuko du gehiengoa, baina EH Bilduk, Podemosek sostengatutako Sumandok eta Irabazik inkestek iragarritakoa lortzen badute, ezkerreko hautagaitza batek PP garaituko luke. Eta Jeltzale eta sozialisten baturak ere bai. Edo EAJ eta EH Bildurenak. Noren esku da, beraz, euskal PPren azken gotorlekua?

Olanotarren lehian Xabierren aukera korapilatsuagoa da. EAJ eta PSEren arteko harremana beste egoera batean zegoen 2011n, oraindik Patxi Lopez lehendakari zela. Bi alderdiek egin dute jada ibilbide bat harrez geroztik eta Gipuzkoan Bilduk gehiengoa lortuta ere, foru gobernuan berriz agintzea arras zail aurreikusten da. Podemosek eta Irabaziren emaitzek eman lezakete ezustekorik, baina orduan ere gaitza horiek EH Bildu sostengatzea, batez ere Podemosen aldetik.

Azken ohar bat hautetsiei: gaur egun ez du agintzen boto gehien lortzen duenak, parlamentario, batzarkide edo zinegotzi gehien batzen duenak baino. Keinukarien jarrerak –hemen bai, hemen ez– ez du balio, arauak instituzio guztietarako balio du. ■

ASTE HONETAKO

zozketak

Argiako harpidedunentzat

Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaiaga auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA
www.larzaldiak.com

1

Eureka!
Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

2

Ekain berri

Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3

Ukabilak eta loreak

Julen Belamuno

2 liburu opari

www.elkar.com

4

Okatxu

komikia opari

www.argia.eus/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2460. Argia)

LAR ZALDIAK
Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)

INGURU ABENTURA
David Cascan Porben (Barakaldo)
Ibon Garmendia Larrañaga (Urrestilla)
Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)
Pilar Otaegi Urruzola (Larraul)

AQUARIUM
Onintze Guridi Otsoa (Arrasate)
Igor Jimenez Honrado (Elorrio)
Idoia Atxaga Mendizabal (Hernani)
Alberto Los Arcos Fernandez (Aras)

PLANETARIOA
Stee-Eilas (Gasteiz)
Julen Goia Eraunzetamurgil (Donostia)
Andoni Alba Salaberria (Iruñea)

ARGIA KAMISETA
Edurne Arrizabalaga Basterretxea (Ondarroa)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO
Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

gure artean euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaldu da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

www.bizkaia.net